

Goienkaria

2009ko uztailaren 17a > Egubakoitza > IX. urtea > 385. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Hartzen
hezurdurak
osorik aurkitzeak
balio du espeziea
eta mota
definitzeko"

Haritz
Villaluenga
Arkeologoa > 07



G2a

The Graffiti
Classics gaur
Arrasaten > 31

BERGARA

Abuztuaren 3an hasiko da
indusketa Seminarioko elizan > 16

ELGETA

Patronatuan jolasleku estalia eta
aterpetxe egin nahi dituzte > 25

ANTZUOLA

Alarde berritua eta bestelako
ekitaldi ugari jai nagusietan > 32

INGURUMENA > ZABORRA

Atez ateko zabor batze zerbitzua jarri nahi dute

BIDERAGARRITASUNA

Mankomunitateak
bideragarritasun
azterketa esleitu dio
Usurbilen aritutako
aditu bati

HELBURUA

Birziklatze tasa ahalik
eta gehien igo nahi
dute eta, ahal bada,
errauste plantaren
auzia bukatu > 04

JENDARTEA > ERLIJOIA

Arrasateko frantziskotar anaidia ixtear dago

Bost mende igaro eta gero,
frantziskotarrak badoaz Arrasatetik. Hiru fraide geratzen
dira Arrasateko komentuan
eta urrian joango dira hirurak;
bi Oñatiako Bidaurreta komen-
tura eta hirugarrena, Tolosa-
ra. Anaidia ixteak, baina, ez
du ekarriko San Frantzisko
eliza ixtea. Hala, mezek eta
katekesiek jarraitu egingo
dute, besteak beste. Komen-
tuari dagokionez, gauzak ez
daude hain argi; oraindik ez
dute erabaki zer egin. > 12

JENDARTEA > AISIALDIA

Mundumira jaialdiaren etorkizuna kolokan dago

Mankomunitateak datorren
urtean Mundumira jaialdia
ez antolatzea erabaki du aste-
on, batzordean. Udal gehien-
ak daude orain arteko forma-
tuarekin ez jarraitzearen alde,
herri txikietarako egokia ez
delako eta Gin Tonic eta *Eus-
kal Herria* aldzikariak aur-
keztutako aurrekontuarekin
ez daudelako ados. Bergara,
Oñati eta Elgeta, berriz, jarrai-
tzearen alde daude, beti ere
antolatzaleekin negoziatzen
saiatuta. > 04



UDAKO LANA Sergio Romero bergararrak zerbitzari dihardu irailera arte.

LEIRE KORTABARRIA

EKONOMIA > UDAN LANEAN

"Krisia gogorra da, eta lanean pozik nabil, uda izanda ere"

Urtero dabil jende asko lanean gehienok opos-
tretan daudenean; aurten, krisiaren eraginez,
lan egiteko irrikan dabil jende asko. Beste
batzuek, berriz, euren ohiko jardueraren ezau-
garriak direla-eta jarraituko dute lanean udan
ere. Udan Debagoienean lan egingo duten bede-
ratzi lagunekin egongo gara. > 02-03

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Elkarrikzeta > 07
Gutunak > 09
Herriak > 11-27
Kirola > 28-30
Kultura > 32
Sailkatuak > 34
Berri-zakua > 35
Eskelak > 35
Gazteak > 36
Telebista-Irratia > 37
Non-zer > 38-39

ION
leihoak

ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK

Debagoiena industrialdea, 11. pub.
Uribarri auzoa (Markulete ondoan)
ARRASATE Tel.: 943 79 11 35

ARAMAIO
ARRASATE
GARAI
URIBE AUZOA

KÖMMERLING
K21

Olagibel 51
01003 GASTEIZ
Tel./Fax: 945 26 71 73

GOKI ERREFORMAK S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK

- Teilatuak
- Fatxadak
- Barruko obrak



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel. 943 76 53 42 - Faxa 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es / www.gokierreformak.net

EKONOMIA > LANA

Udan lana izatearekin gustura daude hainbat

KRISIA Jende askok inoiz baino poziago hartu du udan lan egiteko aukera; krisiak eragin duen egoeratik irteteko modua da

NORMALTASUNA Beste batzuek lan egin beharko dute ohiko negozioa aurrera eramateko, edo jendeak hala eskatzen duelako



UBANE MADERA

KEPA SALTSAMENDI

> Kultura etxeko langile (Arrasate)

Aurten, berritasun moduan, Kulturate zabalik egongo da abuztuan, eta irailera arte harreran topatuko dugu Kepa Saltsamendi. Udan lan "askotan" egin duela diosku, eta, oro har, deitzen diotenean; hala, azken sei hilabeteotan bi herrian jardun du. "Alde ona da, hain zuen, lana daukadala; alde txarra, ezin dudala planik egin", esaten digu. Orain arte, Arrasaten itxura ona hartu dio lanari, "jende asko" joaten da-eta.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA


Aurtengo udan, krisiaren eraginez, aldi bateko %30 kontratu gutxiago egingo dira Estatuan; baina lan-eskaera %20 igo da. Horrez gain, lan egiteko gertu

dagoen jendea askotarikoa da, eta dagoeneko ez dira bakarrik esperimentzia pixka bat lortu gura duten tituludun berriak enplegu bila dabilzanak. Krisiak bultzatuta udan lan egin gura dutenez

gain, baina, euren negozioaren edo lan motaren ezaugarriak direla-eta, lan egitera derrigortuta dagoen jende asko topatuko dugu; eta baita zerbitzu publikoak edo ezinbestean zabalik egon behar dutenak jendearen eskura egongo direla ziurtatzeko lanean ibiliko direnak ere. Baita udarekin eta gehienon aisialdiarekin bereziki lotuta dauden jarduerak egiten dituztenak ere.

BIZITZAK AURERRERA JARRAI DEZAN

Debagoienean ere, lagun asko lanean dabilta hilabeteotan, eguneroko bizitzak eta premiek ez dituztelako oporrik hartzen; batzuek urte osoko jarduera dute



L.K.

AITZIBER GOROSABEL

> Denda eta gatz museoa (Gatzaga)

Aurten, domekan ere zabaldu egingo du Labidea Aitziber Gorosabelek, eta astelehen arratsaldean itxi. Urtero bezala, zerbitzu bikoitza ematen jarraituko du irailera arte; izan ere, "jendeak eskatu egiten du". Museo aldetik, gatz egiteko sua egingo du, bisitariek ikusteko moduan.



GOIENKARIA

ASENTZIO ZUBILLAGA

> DYAKO volunteria (Antzuola)

Debagoieneko DYAn aitzindari da Asentzio, eta "hogeitik gora urte" darao udan ere lan egiten. Aurten ere ibiliko da, gau eta egun larrialdietan laguntzeko gertu. "Zirkulazioa asko murrizten da hemen abuztuan", esaten digu; hala ere, inoiz egokituz zaizkio egoera gogorrak.



L.K.

HARRI ALBISUA

> Soroslea Usakon (Oñati)

Usakon bainu denboraldia hasi berri da, eta hantxe dihardute txandaka bi begiralek. Harri Albisuarenak, lehenengo urtea da Usakon, eta are gehiago, lehenengo urtea sorosleak lanak egiten dituena. Joan den astean hasi zen, eta "dena ondo" joan dela esan digu; han, oinetan zauriak egitea da arriskuetako bat, baina oraingoz horrelakorik ez dela gertatu esan digu. 11:00etatik 20:00etara dihardu, irailaren 15era arte. Udan lan egitea "mauka" dela dio, langabeziatik irteteko modua da-eta; beste urte batzuetan ere egin izan du, baina bestelako lanak.

ESANAK

"Udan lan egitearen alde ona da, hain zuen, lana izatea"

Kepa Saltsamendi > Kulturate

"Lan hau mauka da niretako, langabezian nengo-en-eta"

Harri Albisua > Soroslea Usakon

LANBIDE HEZIKETA CES

Matrikulazio
epea zabalik

Olagibel kalea, 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz

formacionprofesionalces@gmail.com

ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK

BEZEROARI ZERBITZUAK

Titulu ofiziala	7 €
3. maila	4,50 €
Erresuma Batuan	11,50 €
Nazioartean du balioa	10 €
Goi mailako diplomatura	120€
Estentzioak	(Buru osoa eta ile naturala)....120€

E.C.A.
Ertzaintza
Kontseilua
ISO 9001



XABI IGOA

> Udalekuetan begirale eta AEBetan ikasle (Aramaio)

Xabi Igoari, 17 urterekin, ez dio axola udako oporrak hainbat eginbeharretan emateak, lana eta ikaske-
tak bateratzeak. Hala, uztalean, udalekuetan dabil begirale, eta abuztuko oporrak ingelesa ikasten
pasatuko ditu. Bigarren urtez egiten du plan hori; iaz Inglaterrara joan zen ikastera, eta aurten,
AEBetako Idaho estatura doa, hango familia euskaldun baten arrantxoan bizi izatera eta ingelesa
ikastera; arrantxo baten zela bizi diren eta ze lan egindo duten ere bertatik bertara ikusiko du. Bitarte-
an, martitzenera arte dabil udalekuetan; eta "etxera bueltatzean sofan jausten" dela dioen arren, "oso-
oso gustura" dabil ume artean.

-familia-negozioek, turismoare-
kin edo zerbitzuekin lotutakoek
zein lehenengo mailako beharre-
kin lotutakoek;- beste batzuk
ordezkapenak egiten ibiliko dira;
eta badago udako oporrak lane-

rako ematea aukeratu dutenek
ere, lana eta euren aisialdia bate-
ratuz, gustuko jarduerak topa-
tzen. Eta badira ere, lana ez, bai-
na ikasketak egiteko aprobetxa-
tzen dutenak ere; edo gauza biak.

Orri hauetan, gutxi batzuk
elkarrizketatu ditugu, baina bes-
te asko eta asko ibiliko dira, hel-
buru desberdinekin, baina
denak ala denak bailarako egu-
neroko bizitzara laguntzen.



GOIENKARIA

AITOR AGIRIANO

> Udalekuetan begirale (Eskoriatza)

23 urte ditu eta zazpigarre-
nez dabil begirale. "Zaleta-
suna daukat, eta diru pixka
bat ere irabazten dut";
horri gehitu behar zaio
"begiraleok ia umeek baino
hobeto" ibiltzen direla.
Egun osoz dabil, eta
Donostiarako joan-erriore-
kin bateratzen du, antzerki
talde baten dabil-eta han.



LARRAITZ ZEBERIO

MAITE SADA

> Landetxea (Elgeta)

Barrenengua landetxeko
arduradun eta langile da.
"Denetarik" egiten du:
bezeroei harrera egin,
gelak prestatu, zerbitzari...
baina negozioak urte osoko
jardun hori eskatzen du.
Eta, hain zuzen, lana
eskatzen du Maitek: "Uda
geldi dago bezero aldetik,
ea animatzen den!"



L.K.

SERGIO ROMERO

> Zerbitzaria (Bergara)

Aktorea izanda, lan-egutegi
finkorik ez dauka; horregatik,
uztailetik irailera arte,
Zuhaitzi jatetxean zerbitza-
ri dihardu. Pozik dabilela
diosku: "Familia bat bezala
gara; bezeroak ere
egunerokoak dira". Hemen
ostalaritzan lan egitea ez ei
da beste leku batzuetan
adina zaila.

ESANAK

"Ez dit axola oporretan begirale ibiltzeak; pozik nabil"

Xabi Igoa > Udalekuetan begirale

"Madrilen errenta ordaintzen jarraitzen dut; lana ondo dator"

Sergio Romero > Zerbitzaria

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko
Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA IX. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi
buruzko saiakerak edota irizti lanak zabaldu eta
sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren
industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUNEA.

Iraialaren 30a arte

Tel: 948 326535

soltxate@pamiela.com

Arauak: www.pamiela.com



2009

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Uztaileko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

MUNDUMIRA KAMISETA

Mundumira

BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



ATXAGAREN LIBURUA

PAMIOLA

BIDALI AG ATXAGA 5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK

PAMIOLA

BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra



RIP TALDEAREN DVD-A

Goiena

BIDALI AG RIP 5533 zkra



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio
Zerbitzuaren fitxategi automatizatuen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoo
sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haien zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide
honekara idatzita: harpidetza@goiena.com

INGURUMENA > DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Atez ateko zabor bilketaren bideragarritasuna aztertuko dute

Debagoieneko Mankomunitateak aho batez onartu du asteon horren gaineko azterketa egitea

Atez ateko zabor bilketan esperientzia duen Jordi Colomer Misseri arduratuko da hori gauzatzeaz

MIRIAN BITERI > BERGARA
Debagoieneko Mankomunitateak batzarra egin zuen eguztak arratsaldean, eta, beste erabaki batzuen artean, hondakinen atez ateko bilketa selektiboaren bideragarritasuna aztertza onartu zuen, aho batez. Horrekin batera, adostu zuten azterketa Jordi Colomer Misseri enkargatzea. Colomerrek esperientzia zabala du atez ateko bilketa-sistemak ezartzen Katalunian, eta Usurbilen ere aholkulari aritu da azkeneko hilabeteetan. Azterketa horren aurrekontua 12.000 euro izango da.

Mankomunitateko Ingurumen gaietan arduradun Pedro Lasagabasterrek azaldu du azterketa iraila eta azaroa bitartean egitea aurreikusita dutela eta horretan hiru atal nagusi jorratuko dituela.

Colomerrek, batetik, hiri hondakinen egungo egoeraren diagnostika egingo du. Gaur egun baliaran martxan dauden bilketa zerbitzuak sistematizatuko dira, etxe hondakinak, komertzialak eta industrialak bereitztuta. Kasu bakotzerako udalerri bakotzeko ekoizpena, frakzioa eta erabiltzaile mota zehaztuko dira; baita erabiltzaile kopurua, bilketaren logistika, kontratazioaren egoera eta amortizazio efizientzia ere. Bilketa bakotzaren balantze ekonomiko eta hondakinen egungo kudeaketari lotutako ingurumen inpaktuak ere zehaztuko dira. Atal hori osatzeko sei asteko epea aurreikusten dute.

ESANAK

"Helburu nagusia da birziklatze tasa ahalik eta gehien igotzea eta, ahal bada, errauste plantaren auzia bertan behera uztea"

Pedro Lasagabaster > Arduraduna



Colomer Misseri egingo du azterketa; Usurbilen (argazkian) abian jarritako zerbitzuan aholkularitza lanak egin ditu. GOIENKARIA

MURRIZTE AHALMENA

Bestetik, hiri hondakinen kopurua autokonpostaje bidez murrizteko ahalmena aztertuko du. Autokonpostaje ahalmena duten etxebizitzak identifikatuko dira eta frakzio organikoaren bilketa eta

plantan egindako tratamenduarekin aurrezten den diruaren balorazio ekonomikoa egingo da, eta konpostagailuaren eta formazio materialaren erosketaren gastuekin alderatu. Bi asteko epea aurreikusten dute horretarako.

MUNDUMIRA

Mundumira munduko kulturen jaialdiaren etorkizuna kolokan dago

Debagoieneko Mankomunitateak datorren urtean Mundumira munduko kulturen jaialdia ez antolatzea erabaki du. Eguaztenean batzordeak eginik batzarrean jaialdiaren etorkizunari buruz jardutea aurreikusita zegoen gainerrendan; eta horixe egin zuten. Horren gainean eztabaibaidatu ostean, festarekin ez jarraitzearen alde bozkatu zuen batzordeko gehiengoak.

Eztabaibaidan bi iritzi ezberdin mahai gaineratzen ziren: udaletako ordezkarien gehiengoa jaieren orain arteko formatuarekin ez jarraitzearen alde azaldu zen; hain zuzen ere, bailaroko herri txikietako formatua egokia ez izatea eta festaren aurrekontuarekin konforme ez daudela argudiatu zuten.

NEGOZIATZEN JARRAITU

Bergarako, Oñati eta Elgetako ordezkariek, beriz, Mundumirarekin jarraitzearen alde azaldu ziren, jaialdiaren jabe *Euskal Herria* aldizkari eta *Gin Tonicekin* negoziatzen saliatuta; aurrekontua egungo egoera ekonomikoa egokitzeko eta festa bailaroko herri guztietara eramateko konpromisoa har zezaten, bestek beste. Esandako udalek beharrezko ikusten dute jaialdia, ez bakarrak jendea erakartzeko duen gaitasunagatik, bertako herritarrei ere eskaintzen dien aukeragatik baizik.

KOSTUEN ESTIMAZIOA

Hirugarrenik, hiriguneetan atez ateko bilketa kostuen estimazioa jorratuko du. Hau da, etxeetan eta dendetan sortutako hondakinen gaikako produkzioa kalkulatuko du, horren gainean baloratuko da-eta atez ateko bilketa selektiboa ezartzea. Mankomunitateko langileek etxeetako zerbitzuko ibilbidea egiteko behar duten denbora ere aztertuko da.

Hondakinen kopuruen eta bilketa denboraren kalkuluaren arabera, Mankomunitateko herrietan zerbitzua eskaini eta sustatzeko aukerak azalduko dira bakotzaren balorazio ekonomikoarekin. Lau astekoa dira.

Lasagabasterrek azterketa hori egiteko arrazoien berri eman du: "Helburu nagusi da birziklatze tasak ahalik eta gehien igotzea eta, ahal bada, errauste plantaren auzia bertan behera uztea. Sistema horrekin tasa handiak lortzen ari dira Usurbilen, %70 eta %89 artekoak. Gu %30ean gabiltza. Zer irtengo den ez badakigu ere, horrelako azterketak egin behar dira, erabakiak hartu ahal izateko oinarriak ezartzen dituzte-eta".

> TURISMOA

Bailaroko jardunaldi gastronomikoak, hilaren 31ra arte

Debagoieneko II. Jardunaldi Gastronomikoek aurrera jarraitzen dute. Horien bidez, hilaren 31ra arte, hainbat jate-txetan menu bereziak eskaintzen ari dira. Ondorengo jate-txek partea hartzen dute: Aretxabaletan, Baster Alde; Arrasaten, Hilarion eta Santa Ana; Bergaran, Lasa; Eskoriatzan: Mendigoia; Gatzagan, Soran; eta Oñatin, Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluzek. Aurretik erreserba egitea gomendatu dute Mankomunitatetik.

Gastronomiaz gain, Gatzagan *Iturriko gatza mahaian gozo* deituriko bisita egitea eta Arantzazuko *Gomiztegi* eta Antzuolako *Lapatza* bisitaztea gomendatzea dute.

> UMEAK

Saharako eta Txernobilgo umeak gure artean

Saharako umeak Debagoienean daude dagoeneko. Zapatuan, iritsi ziren: bi etorri dira Bergarara; bi, Antzuolara; bat, Elgetara; sei, Arrasatera; hiru, Aretxabaletara; eta bat, Eskoriatzara. Txernobilgoek, bestalde, asteak daramatzate gurean. Oñatin, esaterako, Ukrainatik etorritako hamar haur daude.

Ohikoa denez, hainbat udalek harrera egingo diete neska-mutikoei. Bergaran gaur, egubakoitza, izango da ongietorri jaialdi hori, 19:00etatik 20:00etara, San Martin plazan. Arrasaten, berriz, datorren egunean, hilak 23, hartuko dituzte Arrasatera eta Eskoriatzara heldu diren umeak. 18:00etan izango da hori, udaletxeen.

> POLITIKA

Biktimen alde behar beste neurri ez direla hartzen dio Lamarkak

Iñigo Lamarka Arartekoak asteon aurkeztutako *Euskaldin terrorismoaren biktimatei erakundeek emandako arreta* izeneko txostenean kritikatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek, eta bereziki udalek, ETaren biktimen alde behar beste neurri ez dituztela hartzen.

Txostenean jasotzen da esandakoaren isla dela, bestek beste, biktimen alde hartutako neurrien berri emateko Arartekoak udalerri guztietara bidalitako galdelegiari udalen %25ek ez ziotela erantzun. Txostenak dio, gainera, %19k biktimen oroimena eta indarkeriaren gaitzespina azaltzeko hainbat ekimen egin dituztela.

Juan Kruz Mendizabal > Bergarako Santa Marinako parrokoa

"Fedeburun izateagatik eta diktaduraren aurka egiteagatik fusilatu zituzten"

A.BARRUSO/L.KORTABARRIA >

ARRASATE

Orain dela 70 urte baino gehiago, gerra frankista irabazi zutenek 14 apaiz euskaldun fusilatu zituzten; tartean, bi debagoiendar eta Debagoienean bizi ziren beste bi. Joan den zapataun, Donostia, Bilbao eta Gasteizko gotzainek elizkizun bateratua egin zieten. Bergarako Santa Marinako parrokoa, Juan Kruz Mendizabal, GOITBnian zen horren gainean berba egiten.

70 urte igaro eta gero, zergatik orain elizkizun hau?

Luzaroegi itxaron da. Transizioaren ondoren, herriak bazuen gogoa pertsona haien memoriara ekartzeko. Horrez gain, Erromako eliza katolikoak egin zizkien elizkizunak beste aldeko apaizei, eta justiziazkoaz zen hauek ere gogora ekartzea.

Hortaz, herritarrek eskatutako zerbaiztua izan da?

Bai, herritarrek, eta eliztarrok ere bai. Gauzak bere bidera ekarri behar ziren eta, neurri baten, memoriaren garbiketa egin da; memoriak alde batera bakarrik jotzen badu eta pentsatzentz badugu Elizak alde batetako martiriak edo fusilatuak bakarrak izan dituela gogoan, ez litzateke zuzena izango. Interesgarria da, bestalde, Euskal Herriko gotzainek, testuinguru soziopolitiko eta erlijioso honetan egin duten ahalegina.

Bi debagoiendar zeuden -Leonardo Guridi oñatiarra eta Jorge Iturrikastillo elgetarra- eta Arrasaten zihardutene Jose Joaquin Arin artzaapeza eta Jose Markiegi. Oro har, zelakoak ziren apaiz haiek?



Juan Kruz Mendizabal.

GOIENKARIA

"Herriak bazuen gogoa apaiz haien memoriara ekartzeko; eta eliztarrok ere bai"

"Euskal Herriko gotzainek dokumentu hori adostu izana oso interesgarria da"

40 urteko apaizak ziren. Batzuek kaperau lan egingo zuten, baina gehienek elizbarrutiko ardurak zituzten, eta errepublikar bezala agertu ziren, baina kontua ez da bakarrik alde abertzaleko gisa agertu izana, baizik eta fede aukera batetik joan zirela inposatutako diktadura baten aurka. Fedeburun izateagatik eta justiziaren aurka ziohan diktadura horren aurka egiteagatik fusilatu zituzten. Horregatik, politikaz aparte, fede kontua ere badago hemen.

Ze zuzenketa egingo dira?

Amnistia badu arrisku bat, pasa gaitezkeela amnesiara, eta orio menek badu bere pedagogia: gorrotoarekin ez goazela inora, eta, bestetik, legez eta justiziaz ere gauzak egin behar direla. Apaiz horiek ez zuten hileta elizkizunek izan; Elizbarrutiko aldizkari nagusian, Gasteizen, ez zen erreferentziarik agertu; eta parrokiako hileta liburuetan, azkenean, inskribatu egingo dituzte.

Honek ere bere buelta izango du eta, apaizak abiapuntu, beste pertsona askoren memoria ere berreskuratu egingo da. Bereziki apaiz hauetako zizkien hileta elizkizunek egin, suposatzen zelako ezker aldekoak zirelako; eta beste hainbat pertsonaren memoriaren garbiketa egiten baldin bada, bide berriak irekiko dira.

Bi aldeak izan ziren gogorrak herrietaiko apaizekin, ezta?

Bai. Beste aldekoak ere garbitu zituzten, baina gaur egungo Elizak, behintzat ofizialak, gorai-patu izan ditu ezkerrekoek alde nazionalean garbitutakoak, besteen aipamenik egin gabe. Elizaren martiri egin zituen Juan Paulo II.ak. Baina hauen aipamenik ere ez zegoen. Bidezkoa eta justua zen horrelako hileta elizkizun bat egitea.

Elizak bide berri bati ekin nahi dio, zure iritziz?

Oso momentu interesgarrian gaude. Ez dakit ze etorkizun datorkigun Euskal Herriko elizan, baina nik azpimarratuko nuke Gasteiz, Bilbo eta Donostia-koek gotzainek halako dokumentu interesgarri bat adostea, laburra izanda ere bazterrak nahastuko dituena, nabarmena da.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > eazkarate@goiiena.com'

Debagoienak agur esan dio Mundumirari

Bost urte eman dute elkarrekin Mundumirak eta Debagoienak; *Euskal Herria* aldizkariak eta Debagoieneko Mankomunitateak, Munduko Kulturen Festaren antolatzaileek. Eta amaitu dute elkarlana Mundumira gorenean zegoenean, gero eta oihartzun handiagoa eta jarraitzaile gehiago zituenean. Eguaztenean erabaki zuten ibarreko udalek gehiago ez antolatzea. Bergara, Oñati eta Elgetat jarraitu nahi zuten; besteek ez. Harritu egin nau era-bakiak, samurregi ospa egiten laga diotelakoan.

Ez genuke harritu behar datorren urtean Mundumira Tolosan edo Durangon antolatuko balute. Horixe da okerrena, inbertsioari ez diogula etenik aterako. Euren herria ezagutzen emateko, kanpotarrak erakartzeko, bertakoei ekimen berriak eskaintzeko, gu baino ahalegin handiagoa egiten dutenek jango dute arraina. Tristea da.

Zergatik laga diote, baina? Dirua ei da aitzakia. Oste-rra, atzean beste arrazoi batzuk daudela iruditzen zait, debagoiendarroi euro bana inguru kostatu zaigu-eta jai hori antolatzea. Truken jasotzen dugunagatik, ez dut uste hainbeste denik, udalek krisia gogor jasaten dabilzan hontan ere. Herriek bakoitzak bereari eustea, hiri bakar moduan ez funtzionatzea, jaiak kontrolatu nahi izatea, jaieredua... horiek ez dira benetako arrazoiak?

> Mundumirak eman dio ibarrari ospea eta irudi ona; kanpotik gure herrietara etortzeko aitzakia bat; baina, era berean, izan da bertakoendako aisialdirako aukera paregabea, kanpora horren bila joan barik. Horrek guztiak ez du merezi?

> Hausnarketa prozesua irekiko du Mankomunitateak alternatibak topatzeko. Ondo iruditzen zait, baina dagoenetik abiatuta, finantzazio modu berriak eta hobekuntzak topatzea ez da egokiagoa, efizienteagoa eta errazagoa?

Behe Paleolitoko hartz-hezurdurak topatu dituzte aurten Lezetxikin

Atzo, eguna, bukatu zen aurten go jardunaldia Arrasateko Lezetxiki aztarnategian, Aranzadi Zientzia Elkarteo Alvaro Arriaga-bilaga oñatiarraren (argazkian, eskuman) zuzendaritzapean. Aurten "aurkikuntza interesgarriak" egin dituztela esan dute arduradunek komunikabideekin egindako topaketa baten, martzenean; *Ursus deningeri* espezieko hiru harten eskeletoak osatu ahal izan dituzte. Aurten, matravezurrak, ornoak eta beste hainbat zati aurkitu dituzte.



OIHANA ELORTZA

EKONOMIA > IKERKETA

Bergarako Ogasuneko burua ikertuko dute Bravo kasuan

Batzar Nagusiek ikerketa-batzordea sortzea onartu zuten; irailean hasiko da

L.K. > BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek ikerketa-batzorde bat sortuko dute irailean, Ogasun zuzendari ohi Victor Bravoren eta beste bost lagunen gaineko iruzur salaketak ikertu eta argitzeko. Sei hilabete iraungo du eta ondorioak publikoak izango

dira. Ikertuko dituzten lagunen artean Rufino Eizagirre dago, Bergarako eta Donostia-ko zerga-bilketa buru izandakoa, beste kargu batzuen artean, eta Victor Bravoren bazkide izandakoa.

IRUZUR AKUSAZIOA

Victor Bravo eta beste bost lagunen Fiskaltzak egotzen die Kata-luniako Glass Costa Este Salou enpresak egindako iruzur baten parte hartu izana: bere egoitza Donostian izatearen itxurak egin zituen ogasun arauak ekinditeko.



zabalik

Txipi Ormaetxea

Euskaldunok eta ingelesa

San Joanak Kopenhagen eman ditut, lanean (bueno, zorio-nez denbora apur bat ere izan dut hiri eder hori pixka bat ezagutzeko). Jakina da Danimarka oso aurreratua dela. Hainbat kontutan (bizi-mailan, metroaren kalitatean, jendearen zoriontasunean...) punta-puntan dabil. Kopenhagen ikusi ditu danetatik hainbat gauza ekarriko nituzke gurera, esaterako bizi-kletaren erabilera deigarria hirian zehar mugitzeo.

Hala ere, hemen hizkuntzaren kontua aipatu gura dut bere-ziki. Danimarkan daniera da estatuko hizkuntza ofiziala, baina askok alemana ere badakite, eta ia gehienek ingelesa. Arrazoi asko eta askotarikoak izango dira, dudarik gabe, ingelesaren ezagutza zabal hori azalduko dutenak. Ondo ezagutzen ez ditudanez, ez ditut aipatuko.

Baina bat-batean galdera datorkit: eta euskaldunok zer? Zertan da gure ingelesaren ezagutza? Ez dut esango azken urteetan aurrera egin ez denik, baina oso-oso urru gaude daniarréngandik. Gure ispilu eta eredu Espainia da, eta halaxe doakigu. Telebista, berbarako, bide ona da hizkuntzak ikasi eta lantzeko, baina guri bururatuez egin zaigu, besteren artean, filmetan-eta ingeleseko bertsioa ematea azpitituluak. Han hola egiten dute, ingelessez entzuten duzu eta azpitituluak danieraz irakur ditzakezu. Baino ez dago hain urru joan beharrik; badira urteak Portugalen bertan ere gauza bera egiten dutela. Eta gu Espainiaren morroi...

Duela egun gutxi, Atharratzeko denda batean ikusia: kamiseta batean idatzia zen (frantsesez!) ingelesari muzin egin behar diogula, eta euskara nagusitu. Ez nator ezelan ere bat (eta ez daukat euskara saltzeko)!

usteak uste

Mireia Bikuña

Stieg Larsson-en trilogiari buruz

Udan ze liburu irakurri pentsatzen nengoela, Stieg Larsson-en trilogiaren azken liburuaren berri izan nuen. Salgai jarri zuten egunean agortu zen *La reina en el palacio de las corrientes de aire*. Ez nuen idazlearen gaineko erreferentziarik, baina liburuari buruz entzundakoak arreta piztu zuen nigan (oso ona ei da!). Trilogiako lehen liburua irakurtzen hasi naiz (*Los hombres que no amaban a las mujeres*) eta hirurak irakurtzeko asmoa dut. Irailean emango dizuet nire iritzia. Opor on!

Goienkaria

Argitaratzailea Goien Komunikazio Berbitzulek Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi Saitetako ardurdunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edi Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorra Martín, Ixasoz Bereizbar, Aintzane Muruamendia **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiene.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiene.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiene.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goiene.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiene.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



marrakiz

Unai Busturia



blog-top

Jabo Irureta, ongi eterri

Luis Aranberri 'Amatiño'
<http://eibar.org/blogak/amatino>

Hamalau urteren bueltan berriro San Mamesen izango dugu Jabo Irureta. Ez entrenatzaile gisa, kirolzuzendari modura baino. Izungarri pozten naiz, nik neuk zer ikusirik izan nuen-eta Athletetic alde egin zezan edo, behar bida, ez nuen segurutik behar beste egin bertan geratzeko.

Athleticek Javier Iruretagoiena entrenatzailea izan zuen garaiaren (1993-1995), Patxi Alonso Radio Euskadi-ren kirolerredaktoreburu zen eta, ETB2n, audientzia handiko *El Derby* programaren aurkezle (...).

Ezin jakin gero zergatik baina kontu ezaguna da Patxi Alonso estu-mestu hartu izan zuela irundarraren lana eta berebiziko kritika latzez josi, astez aste, partidaz partida, etenik gabe. Alonsoren ustez, Iruretaren ekarria zeharo kontserbatzailea zen eta jokalarien artean eragiten zuen jokoak, berriz, guztiz aspergarria, motela, tristea, inozoa eta

ganorabakoa. Ligaren erdipurdiko postuetan aritu eta Europan jardun arren, Athleticek talde normaltxoa zuen orduan ere baina, batere errukirik gabe, Patxi Alonso Iruretaren ezjakintasunari leporatu ohi zizkion Athleticen eskasiak, ahuleriak eta ezintasun guztiak.

Aurrenik Iruretak ez ikusi egin zuen, gero gogaitu, ondoren kexatu eta, atzenean, laguntza eskatu. Baita ni, ETBren zuzendari nintzenez gero, Athleticen lehendakariarekin bildu ere baina, nonbait, ez ginen -ez nintzen— arazo hari planto egiteko gauza izan.

Orduan sumatu nuen nere baitan zein zaila den harro asko maldan gora (behera, alegia) doan kazetari harroxko eta sukartsua baretzea, lasaitzea, ildoratzea, geraraztea, bere senera ekartzea. Are zailago kirol arloko kritikek inondik ere hil ala bizikoak ematen ez zutelarik.

Patxi Alonso ez zion etsi eta Javier Iruretak Athletic utzi behar izan zuen edo utzi beharra sumatu zuen. Ez zuen presio hora jasan edota jasaterek ez zuela merezi erabaki zuen. Kontua da 95-96ko denboraldi erdialdера ospagin zuela.

koplak

Manex Agirre

Karibe

Ez lagun, ez adiskide asperdura ihesbide nire etxeko egongelatik ikus dezaket Karibe.

Maraka, timbal ta djembe saltsa, kumbia, merengue odol hotza dut, baina / jausi naiz dultzemeneoan mende.

Antigua, Martinika, hiru mulata zirrika, koral gainetik ibil naiteke saltoka eta korrika.

Margarita, kaipirina, ozeanoa urdina Zumaia daukat etxetik / bertan Bainam...mmm... ez da berdina...

Santeria eta budu, gogo ilunak? Ehun inguru. traman jaunaren laguntzarekin denak bidali ditugu..

Berriz egongelan, ongi... inortxok ez esan niri ameten bidez ezin dudanik onanismoan erori.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Eguenean amaitu zuten aur-tengo ikerketa Arrasateko Leze-txiki kobazuloan. Hiru astek 18

bat boluntariok jardun dute indusketa lanetan eta, besteak beste, iaz aurkitutako hiru har-

tzen hezurdurak atera dituzte, baita gizakiaren presentzia fro-gatzen duten harrizko tresnak

aurkitu ere. Lezetxikiko aurki-kuntzen garrantziaz jardun dugu bi arkeologorekin.

Alvaro Arrizabalaga eta Haritza Villaluenga > Lezetxikiko indusketa arduraduna eta arkeologoa

"Lezetxiki 2ko tresnak Kantaui aldean datatutako zaharrenak izango dira"

GOIENKARIA > ARRASATE

Euskal Herriko Unibertsitateko His-toriaurreko irakasle da Alvaro Arri-zabalaga. Hura da Lezetxikiko indus-keten arduraduna eta aurten 14 urte bete ditu han. Haritza Villaluenga arkeologoa, berriz, tesia egiten dihardu leizeetako hartzen inguru-an. Biek eman digute aur-tengo aurkikuntzen berri.

Ikerketarako material garrantzitsua aurkitu duzue Lezetxikin. Zer moduzko kan-paina izan da aur-tengoa?

Alvaro Arrizabalaga: Ongi joan da eta hiru asteotan deneta-riko gauzak atera dira. Txundi-garia iruditu zaigu Lezetxiki 2 kobazuloaren oinaldean pilatu-ta agertu den harrizko tresna multzoa. Datatzen dugunean mai-la hori, eta datagarria izango da, baditugu-eta hezurrik eta beste euskarri batzuk horien gainean datazioak egin ahal izateko, izan-go dira datatutako tresnarik zaharrenak, seguru aski, Kantaui alde osoan.

Leizeetako hartzen inguruko tesia egiten diharduzu eta badi-ra sei urte Lezetxikira etortzen zarena. Garrantzitsua da egin-dako aurkikuntza?

Haritza Villaluenga: Nire tesi-rako oinarrizko lekua da Lezetxi-ki, gero beste haitzulo batzuekin osatuko badut ere. Gaur egune-ra arte pentsatzen zen gizakiak ehizatzen zituela hartzak, baina azkeneko urteetan beste ikuspegi bat garatzen ari da eta ikusten da batez ere haitzuloetan hartzek hibernatu egiten zutela eta giza-kiak noizbehinka bakarril sar-tzen zirela. Aurkitutako hiru hezurdurak nahiko interesgarriak dira, ze normalean aurki-tzen baita hezur solteren bat, bai-na guk aurkitu ditugu hartz-en hezurdurak ia osorik eta kasu baten, behintzat, hezurdura osoa; horrek balio du espeziea eta hartz mota oso ondo definitzeko.

Tesia ez duzu soilik Lezetxiki-ko aurkikuntzeta oinarritu-ko. Zein beste erreferentzia daude gai honen inguruan?

Nafarroan dagoen Amutxate-ko leizea. Ixtita egon zen eta orain dela hamar urte espeleologo batzuk hara sartu arte ez zen eza-guna izan. Inoiz ez da han giza-kirik egon eta Trinidad de Torres Madrilgo ikertzaileak 150 har-tzetzik gora topatu ditu osorik, eta hori oso gutxitan gertatzen den aurkikuntza da.



Alvaro Arrizabalagak eta Haritza Villaluengak Garagartzako Lezetxikin dihardute lanean.

MIREN ARREGI

Zergatik aurkitu dira oso-oso-rik eta hain egoera onean hiru hezurdurak?

Alvaro: Sedimentazio tasa, sedimentazio abiada oso arina izan delako, behintzat maila horretan, ez baitie eman astirik beste basapiztiei, hartzei edo gizakiiei hezur horiek leku aldatzeko. Hortaz, egoera aparta da eta oso gutxitan aurkitzen dena, are gutxiago Lezetxikin bezala sei metrora sedimentu azpian.

Zenbat urte dituzte hiru hezur-dura horiek?

Alvaro: Kalkulatzen dugu iaz gainditu genuela 150.000 urteko muga. Muga kronologiko garran-tzitsua da, hor gertatzen delako bi espezieen arteko eboluzioa. Gizakiari dagokionez, aurrelik Atapuerca agertzen den tanke-rakoa da, eta, hain justu, data hori gainditu ostean bihurtzen da Neanderthal. Hartzari dagokio-nez, aurreko espeziea da Denin-

geri eta Deningeriren eboluzio biologikoa da jendeak ezagutzen duen leizeetako harta.

Urte asko dira Lezetxikin egin dakoak. Zein aurkikuntzare-kin geratuko zinateke?

Alvaro: Multzoa azpimarratua behar da, bereziki. Oso garrantzi-tsua da Iberiar Penintsulan ikus-ten delako Neanderthalen ebolu-zio guztia; bai biologikoa, agertzen direlako aztarna fisikoak, hezu-rrak, baina baita eboluzio teknolo-gikoa, ekonomikoa, kulturala... Horrez gain, badaude beste bi gai garrantzitsu: oso txundigarria da trantsizioa Homo Heidelbergensis-tik Neanderthalera; baita ere beste trantsizioa Neanderthalen eta gure espeziearen artean. Kasu horretan ez da trantsizioa, ez dago elako jarraipen biologikorik, bai-na badago tarte bat duela 45.000 urte inguru, non azken Neandert-halak Lezetxikin bizi baitziren eta handik lau kilometrora aurki-

tzen dugu beste aztarnategi bat, Labeko Koba izenekoa, non aurkitzen ditugun Cro-Magnon oso zaharrak.

Aurtengo aurkikuntza bat Lezetxiki 2 koban aurkituta-ko harrizko tresna multzoa da. Hor lan askorik ez zaizue gelditzen, ezta?

Haritza: Ez. Lau metro zituen luzeran eta hiru metro baino gehiagotan pixkanaka haitzulo-aren beheko harria atera zaigu eta bakarrik metro koadro batean sedimentua gelditzen da industreko. Aurten pentsatzen genuen bukaerako mailak zirela, eta harrizko tresneria agertu da.

Badirudi beti izaten direla azken egunetan sorpresak Lezetxikiko indusketetan. Hala da?

Alvaro: Badaude aztarnategi batzuk non kudeatzen diren sor-presak. Hau da, urte batean lau gauza berezi agertzen direnean, baten aurkezpena baino ez da egiten. Baino guk hori egiten dugunean da, batzuetan diskre-zioa mantendu behar delako datu konkreturen baten gainean. Bain-a benetan aztarnategiak ematen du, eta nik, 1996an sartu nintze-nean, ez nuen espero hainbeste emango zuenik. Gu ari gara lane-an Barandiaranek egin zuen azale-rarekin alderatuz gero hark industutako %10eko azaleran, eta nekez alda daiteke askorik hark emandako informazioa.

AHTko lanak hasi dituzte aur-ten. Traba izan da zuen lane-an? Lezetxiki arriskuan da?

Alvaro: Zorionez, eskerrak eman behar zaizkio Arrasateko Udalari, izan zelako garai hartan etxeko lanak egin zituen erakunde bakarra. Trena hasiera fase-an zegoela niregana etorri zen garaiko alkatea eta esan zidan suntsituko zuela erabat bailara, eta Udaletik helegiteak ipiniko zituztela, baina gure aldetik ere, nahi izanez gero, zerbait prestatzeko. Modu pribatuau, ez Dipu-tazioak ezta Gobernuak ere ez zituzten ipini helegiteak. Uda-lak ipinitakoez gain, gure alega-zio pribatuak sartu ziren, eta zorionez onartu egin ziren. Izan-go ditugu jende askok bezala arazoak aztarnategira iristeko, zara-ta eta lanak ere hor daude, eta arriskuan egon daiteke beharba-da beste zerbait ezkutatuta dagoena eta garaiz identifikatu ez duguna, baina Lezetxiki ez.

Herritarren parte-hartzea

Pedro Sologaistoa, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jaber Arana
(Oñati LABeko Erretiratua)

Joan zen otsailaren 13ko GOIENKARIAn argitara eman zen LAB sindikatuaren erretiratua eta pentsiodunen sail edo atal berriaren sorrera, bertan zehazten zirelarik arrazoia eta helburuak ekintza berri hau martxan jartzeko. Idatzien bukaeran esaten genuen Oñati LAB Sindikatuko Erretiratuen ordezkariak parte hartu nahi genuela Udaleko Gizarte Zerbitzuko batzordean, bertako bileretako gaietan implikatuz. Zita eskatu genuen alkate andrearekin egoteko eta martxoaren 31n, ia-ia bi hilabete beranduago, hartu gintuen udaletxeen.

Bilera hasieran esplikatu genion gure asmoa alkateari: erretiratuen sindikalgiuntzako antolamenduan hasi berriak izanik eta herrian egon litezen beste zenbait elkartea ahaztu gabe, Udaleko Gizarte Zerbitzuko batzordean egoteko arrazoia bidaudela eta gure ustez zeintzuk diren agertu genizkion.

Hasteko eta Oñati Udaleko Gizarte Zerbitzuko atalean datorren informazioak dioenez, zerbitzu horren helburuetako bat da giza lankidetza eta borondatezko programa sustatzea.

Beraz, batzorde horretan egon nahi dugula esaten dugunean gure ideiak eta gure lana eskaini nahi ditugula esaten ari gara eta horregatik bat datorrela goian aipaturiko helburuarekin.

Beste arrazoi bat da lanerako adin mugara iritsi ondoren, erretiratuen sindikalgiuntzak daukan esparru naturala dela Gizarte Zerbitzua, bertatik zuzentzen direlako ongizate politikak eta hauek aurrera eramateko behar diren baliabide ekonomikoak. Eta baliabide

horiek banatzeko irizpideetan parte hartzeo eskubide osoa dauagu, zeren azkenean urteetan aurrera egin ahala, ezinak ere gehitzen baitoaz eta Gizarte Zerbitzutik eterri litezkeen laguntzen beharrean izan gitezke gutxien uste dugunean.

Horregatik bidezkoa dela pentsatzen dugu LAB Sindikatuko Erretiratuen partaide bezala Gizarte Zerbitzuko batzordean egon nahi izatea, bertan erabakitzent direlako gizartean sortzen diren premia ekonomiko eta asistentzialei emateko erantzunak.

Eta, azkenik, gure azalpena bukatzen, esan genion alkate andreatzi zinegotzi egonak garela Udalean eta batzordeak irekiak zirela herritar guztientzat eta batzorde ezberdinak bileretan jasotako eskaerak bertako batzorde-buruak eramatzen zituela Gobernu Batzordera eta han hartzten zirela erabakiak.

Beraz, goian esan dugun bezala, erretiratuen giza taldeak eduki ditzakeen premiak kontuan hartuta Udaleko Gizarte Zerbitzuko batzordean parte hartzeko desioa agertu genion berriz ere alkate andreatzi.

Baina honek bere erantzunean esan zigun oker genbiltzala horrelako gaiak Udalera ekarri nahian, ez delako horretarako lekua eta ez daukala zentzurik Gizarte Zerbitzuan aurkeztea beste erakundeetan jorratzen diren gaiak. Gainera, Udalak ba omen ditu harreman finkoak herriko elkartekin eta haien bitartez bidera ahal genitzakela gure eskariak. Bilera amaitzean esan zigun Udaleko Gobernu Batzordean hartuko zela gure eskaerari buruzko erabakia eta aditzera emango zitzagula.

Harrezkero, alkate andrearekin noiz bilduko ote ginen zain egon gara, baina ez digu hots egin. Udaleko komunikazio baten bitartez jaso dugu erantzuna.

Maiatzaren azkeneko astean jaso genuen Udaleko

Gobernu Batzarrak 2009ko maiatzaren 14an egindako bileran LABeko Erretiratuen taldearen eskaerari emandako erabakia.

Oñatiko Udalak jakinarazten digun akordioak honela dio: "Galdeketa hauei erantzutea borondatezkoa da, noski, baina ikerketa honetatik ateratako ondorioak ahalik eta zuzenak izan daitezen, modu batera edo bestera parte hartzeko gonbita luzatu die Udalak herritarrei".

Eta, ondoren, jaso dugun akordioak esaten du: gaia aztertu ondoren, Udal Gobernuak erabaki duela:

a. Lan batzordeak itxiak diren aldetik LAB sindikatuko ordezkariak ezingo dutela parte hartu Gizarte batzordean.

b. Gizarte batzordeari edo beste edozein lan batzorderi dagozkien gairen bat proposatu nahi bada, horren berri batzordeburuari eman behar zaiola eta haren oniritzia gai horren aurkezpena egin ondoren bileratik alde egin beharko duela.

Argi daukagu, beraz, Errege Dekretuko artikulu horien aitzakian alkate andreatzi gaitueta ikusi nahi Gizarte batzordean. Baino ondo daki alkateak berak dekretu horretan bertan 130. artikuluan legeak esaten duena: Udaleko osoko bilkurak edo plenoak erabaki dezakeela lan batzordeak irekiak izatea herritarrek eta taldeek parte har dezaten herriko gorabeheretan.

Eta, gainera, badaki, baita ere, bere garaian agintaldi bakoitzeko osoko bilkuran horrela erabaki zelako, urte askotan lan batzordeak irekiak izan direla Oñati Udalean.

Beraz, berak jakingo du zergatik ez gaituen ikusi nahi Udalean, gure borondatea gizarte gaietan LAB Erretiratuen taldea bezala jardutea baldin bada, baina garbi eduki dezala ez garela isilik eta geldirik geratuko.

Idatzi hau bukatzen ez genuke aipatu barik utzi nahi

Kontzejupetik-eko ekaineko 185. zenbakiko artikuluak esaten duena: politika publikoei buruzko herritarren iritzia ezagutzeko inkestak egiten ari da Udal. Eta pasarte batean dio: "Galdeketa hauei erantzutea borondatezkoa da, noski, baina ikerketa honetatik ateratako ondorioak ahalik eta zuzenak izan daitezen, modu batera edo bestera parte hartzeko gonbita luzatu die Udalak herritarrei".

Alkate andreak LABeko Erretiratuen ordezkarioi eman digun erantzuna ikusita eta Udalak hartu duen erabakia kontuan hartuta, herritarrei esan nahi genieke inkestak egiteak ez duela ezertarako balio, gero batzorderen batean parte hartu nahi denean ate guztiak muturren aurrean ixten badizkigute.

Herriaren indarra

Antonia Galiot Chups
Bergara

Azkeneko hamar urteetan Latinoamerikak lortutako demokraziek legislatzeko forma berriak ekarri dizkiote herriari. Demokrazia horiek zerikusia daukate gizartearen ongizatearekin eta ez kapitalismoaren mozkinekin. Batez ere, demokrazia partizipatiboak dira eta zaindu eta sakondu egin behar dituzte. Latinoamerikako herri batzuek demokraziari sozialismo jarri diote abizen bezala.

Beste batzuk ausartagoak izan dira eta XXI. mendeko sozialismorantz doazela diote. Legeak egiteko eta baliabide naturalak nola gestionatzeko galdu ez duten demokraziei ezetz esan diete herriek.

Beste demokrazia bat posiblea da! Galderei esker posiblea da, auzokideen bilerei esker, kontseilu komunalei esker, erreferendumei esker, mobilizazioei esker...

Ados al zaude datorren 2009ko abenduko hauteskundeetan laugarren kutxa bat

jartzea, eta dei bat egitea, Biltzar Nazional Konstituziole bat osatzeko eta Konstituzio Politiko berri bat onar dezala erabakitzeko?

Galdera hau izan da detonatzilea. Honduras estatu-kolpea eman dutenak galdera horrekin beldurtu dira. Zeri diote beldur? Biltzar Konstituziole batean, zein abantaila gal ditzakete? Momentu honetan ez lotura ez eragin juridikorik ez dituen galderak estatu-kolpea sor dezake? Partizipatiboak eta protagonikoak diren demokrasieta, galderak eta erantzunak ez dira legitimoak?

Estatu-kolpearen alde dauden komunikabideek diotenez, Zelayak konstituzioa aldatu nahi duela diote datoren hauteskundeetan berriz hautatua izateko. Alvaro Uribek, Kolombiako presidenteak, gauza bera egin zuen bere herrialdean inori galdu gabe. Oposizio on batek ezin diezaike irabazi Zelayari datorren hauteskundeetan? Gizon baten jarraipenari beldur diote edo kontrol imperialistari ihes egiten dion eta justizia eta duintasun politikoan hasten doan herri bat?

Hondurasko San Pedro Sulako bilera batean, Kuba, OEAn berriro onartua erabaki zen guztien adostasunez, Zelaya, protagonista eta bultzatzaile importanteenetariko bat izanez bilera honetan. Kanpoko gobernuren batek, akaso, Zelayak OEAn egin zuena ez du barkatzen? Edo Ertamerikako askatasuna lortzen duen herri ahalena Honduras al da?

Beste demokrazia bat posible da: beste konstituzio batzuekin, beste partizipazio praxi batzuekin, herri pobrenen balorazioarekin, zein errealtatean dominatziale eta esplotatziale istorioak dituzten kolektiboenengatik pobretua izan dena. Hondurasko herriak demokrazia errepresentatiboari ezetz esan zion, eliteak ordezkatzen dituen demokraziari.

(10. orrialdean jarraitzen du)

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karak-tere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburteko. Gutunarekin bateko bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefona:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goinena.com



Finantzaketa kuota personalizatuak

SMS SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Ez duzulako
galtzea jasaten.

EUROLIDER
GORDAILU BERRIA

IRABAZTEKO ASKO,
GALTZEKO DEUS EZ.

%100
BERMATUTA

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 090203 espediente zk-duna.

Errentagarritasun handiko aukerak
eta zure kapitalaren %100
bermatuta dituen gordailua.
Etorri **kutxara** eta galde iezaguzu.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

(8. orrialdetik dator)

Erakunde internazionalek (OEA, ONU, ALBA, UNASUR, eta UE) erabakiak hartu behar dituzte lehenbailehen, Hondurasko demokrazia berriz ezartzeko eta klase arteko borrokarekin lortu dituzten konkista sozialak mantentzeko. UEko ezker alderdiek IUko Willy Meyer diputatua bidali dute Hondurasera informe bat egitera. Informe honekin, mozio bat aurkeztuko du ezkerrak Europako parlamentuan. Bien bitartean, Hondurasko herria kalean dago borrokan.

HUHEZIK deslokalizazioa?

Juan Carlos Bengoa Munduate
(Eskoriatzako Alkarbide)
Eskoriatza

Duela aste pare bat, Mondragon Unibertsitatea (aurrera-tzean MU) Ikus-entzuneko komunikazioa Aretxabaletara, Tubos izeneko esparrura, eramatea aztertzen ari dela jakin dugu, HUHEZIK asko hazi eta nekez sartzen direlako denak Eskoriatzan. Berriak ez nau harritu, baina notiziak Eskoriatzan hausnarketarik eta eztabaidarik ez sortzea bai harritzen nauela, nahiz eta jabetuta nagoenez, besteak beste, gehiegizko *komunikazioagatik* galdu dugula memoria.

Eta memoria lantzko, egin dezagun historia pixka bat. Lehenengo, Udalak MU eta San Biator komunitatearen arteko bitartekaritza lan izugarria egin zuen eraikuntza erosi eta HUHEZIKo fakultatea martxan jartzeko.

Gero, erosketa honetan laguntzeko Udalak MURI 120.000 euroko prestamoa eman zion, interesik gabe 20 urtetan itzultzeko. 2001an Arau Subsidiarioak onartu zirenean MUko partzelan honako aukerak jarri ziren: gaur egun aparkaleku dagoen partzelan hezkuntza ekipamendua handitzeko beste eraikin berri bat egiteko aukera dute. Errekatik bestaldera, Magisteritzako eraikinaren ondoan, 32 etxebizita egiteko aukera dute, inoz lehen aipatutako eraikin berria egitekotan, finantzazioan laguntzeko.

Geroago, aparkaleku eta beste instalazio batzuk erabilen ordez, hitzarmen baten bitarte, 120.000 euro haien barkatu egin zitzakien. Horren harira, 2006an Udalak egin zuen aparkalekuaren ampliazioa.

Orain urtebetetan inguru, toki ezaren ondorioz, Udalak estetikoki nahiko eztabaidagariak diren barrakoi batzuk jartzea utzi die.

Orain leku gutxi dutela-eta, Eskoriatzan partzela eta diru iturriak dituztenean, Aretxabaletan beste eraikin bat konpondu eta erabiltzea pentsatzen ari dira.

Agintaldi honen hasieran alkateak herriko Arau Subsidiarioen erabateko aldaketa prozesuari 2009an hasiera eman behar ziola esan zuen. Prozesu hori aurrera doa, eta ampliazio bat egin behar dutenean, beste herri batera jo dutela jabeturik, MUko partzelari eman zitzakion aukerak ere berraztertu egin beharko dira, ezta?

Agian gehiegikerian jauzi naizela irudituko zaie batzuei, baina urte hauetan, Udalaren bitarte, MURI emandakoa kontuan edukiz, egin behar dituen ampliazioei eta kokapenari buruz, Eskoriatzako herriak zerbait esateko eskubidea ez al du irabazi?

Eskerrik asko!

Elena Herrarte Letona
Arrasate

14 hilabetez 24 ordu nirekin izan ondoren, bigarren gozoz zilbor-hestea eteteko unea iritsi zitzaidan: alaba Haurreskolan utzi eta lanean hasteko. Emozionalki une atsekabetsua suertua zitzagun alabari eta bioi. Baina poliki, ingurukoen laguntzaz eta Haurreskolaren babesaz gainditu genuen trantzea.

Orditik, hamaika une gozo bizitzeko aukera eskaini digute Haurreskolako lagunek. Gaur, ikasturtearen amaieran, aprobetxatu nahi nuke eskerrak

helarazteko bertako lantalde osoari: gure seme-alaben izaera eta erritmoak errespetatzu hain garapenean mugarri garrantzitsu izan zaretelako. Gure seme-alaben esperientzia eta bizi-pen positiboaren barne kutxan betiko iraungo duen arrastoa utzi duzuelako.

Ongizate eta garapen integrala ipar, proiektu serio bat etengabe irribarrez garatu duzuenoi. Begirale baino askoz gehiago, hezitzailletik haratago, profesionaltasunari berotasuna gehituz, bidelagun hurbil, motibatu eta maitakor izan zaituztegulako. Zuoi, Lur, Maitane eta beste guztioi, eskerrik asko, bihotzez.

Europako azken aborigenak

Gurutz Garmendia
Azkoitia

Aspaldi esan ziaten, historia irabazleak idazten ziatela eta ez ziaten arrazoi faltarik. Behin eta berriro antzemango dizkigu horren ondorioak eta, era berean, jasan ere jasan egin behar. Baina gurea bezalako herrietan arazoa larriagotu egiten duk. Bertako ohiturak ahozkoan oinarritzen baitituk batik bat. Eta jakin, aspalditik genekian gure herria oso zaharra zuela. Benetan zaharra. Baina orain, zera zekiagu. Herri

aurreindoeuroparra gaituela ipar Ameriketako hainbat leinu bezalaxe eta euskaldunak Europako aborigenak gaituela.

Bestalde, jakineko gauza duk aurreneko kromagnoneko andre-gizonak, orain dela 45.000 urte inguru iritsi zituela Europako mendebaldera eta Auñamendietako bi isurietara eta guk gaur egun gure azkeneko bi mila urte pasatxoak besterik ez dizkiagula ezagutzen. Zer gertatu zuan beste 40.000 urteetan? Ingurune hauetara iritsi zituenerako burua guk bezain argi edo tentela ziaten eta Altamira, Ekain edo Lascauxeko leize zuloetan antzeman daitekeen gisa eskuekin ere lan bikainak egiten zizkiaten.

Leize hauetan babestu zituan andra gizonak hainbat hotzaldiri aurre egiteko eta leize hauetan garatu zituan aurreindoeuroparen sinismen eta ohiturak. Hizkuntza berak ere izan zian garapenik eta andra gizonak aurreneko hitz egin zizkiaten hizkuntza haietatik, Euskara garatu zuan. Baina gure hizkuntza, ez zen hitz egiteko modu xiple gisa garatu. Euskara sinismen aurreindoeuroparrak barnetatzeko hizkuntza duk eta ez duk kasualitate hutsa euskaraz, gutasunak nitasunak baino indar handiagoa izatea eta ezta ere emakume eta gizonezkoen artean bereizketarik ez egitea, hizkerari dagokionean.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA BERRIA

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa (Egungo Mekanizazio Bidezko Produkzioaren ordez)

Makina-erremineta konbentzional eta zenbakizko kontrolekoetan fabrikazioa

Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa. CAD/CAM

Produktuen egiaztatzea

Produkzioaren programazioa eta kalitate kontrola

Produktu mekanikoen fabrikaziorako proiektua (PBL)

Lan-irteerak:

Zenbakizko kontrol makinen programatzalea
Sistema automatizatuen programatzalea
Produkzioaren programatzalea
Metalak prozesatzeko instalazioen arduraduna


Informazio gehiago: www.mondragon.edu/gep



formación profesional




MONDRAGON



**2009-2010
Ikasturtea**

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Aretxabaleta > 20-21 Eskoriatza > 22-23
Oñati > 23 Antzuola > 24 Elgeta > 25 Aramaio > 26 Gatzaga > 27



> ARRASATE

Frantziskotar anaidia itxi arren, zerbitzuak jarraitu egingo du > 12



> ARETXABAleta

Ukimen-pantaila dago Arkupen, informazioa emateko > 20



> OÑATI

Irailaren 1ean hasiko dira danborradako entseguak > 23



> ELGETA

Domingo Iturbe patronatua berritzeko dirua eskatu dute > 25

OÑATI > AZPIEGITURAK

Datorren astean esleitu gura ditu Oñatiko Udalak Urrutxuko lanak

LEHIAKETA

Obrak lortzeko lehiaketa bukatu berri da, eta proiektuak aztertzen dabil Udalak

HELBURUA

Etorkizunean, kirola egiteko gunea eraikiko dute; plataforma bat egingo dute orain

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Hilaren 23ko osoko bilkuraren onartu gura du Oñatiko Udalak Urrutxuko zabortegia berreskutzeko lanak ze enpresari esleitu. Lehiaketara 13 empresa edo aldi bateko enpresa-elkartea (UTE) aurkeztu dira, eta egunotan dabilta Oñatiko Udaleko ordezkariak eta LKSK teknikariak proiektuak aztertzen. Anjel Biain Oñatiko Hirigintza zinegotziak esan digunez, "enpresa guztiak betetzen dituzte baldintzak". Bestalde, Oñatiko hainbat enpresa aurkeztu direla ere esan digu. Horrenbestez, lanak "lehenbailehen" hasiko dituztela gainearatu du zinegotziak, baina "data zehatzik ez dago: uztail bukaeran edo abuztu hasieran" gura luke Oñatiko Udalak.

Urrutxuko lursaila berreskutzeko lanak finantzatzeko, 2,8 milioi euro lortu ditu Oñatiko Udalak: 1,3 milioi Foru Aldunditik; 300.000 euro Ihobetik; eta 750.000, Ibarra lurreremu bat Etorri saltzeagatik. Oraindik dirulaguntza gehiago lortzeko ahaleginetan dabil Udalak, izan ere, oraingo agintaldian geratzen den inbertsioetarako dirua Errekalde eta San Lorentzo auzoak berritzeko izango dela erabaki zuen Udalak, eta horrek esan gura du beste proiektuetarako ahalik eta diru-iturri gehienak behar izango dituela. Proiektu osoak 5,7 milioiko aurrekontua du.

LANON HELBURUA DA ETORKIZUNEAN KIROLGUNEA EGITEKO LEKU EGOKIA SORTZEA, ZABORTEGIA DAGO-



Kanposantu atzoko zelaian zegoen garai baten zabortegia; han egingo dituzte orain obrak.

LEIRE KORTABARRIA

en lekuak egokituta eta aprobeta txatuta. Edozein modutan, kirol-gunea egitea etorkizunerako asmo bat da, proiektua dagoeneko idatzita dagoen arren.

LEHENENGOKO PLATAFORMA SORTU
Lehenengo fasean, lurra mugitu egingo dituzte eta plataforma horizontal bat sortu. Gero, sei hilabetez bere horretan utziko dituzte lurrok, egonkortu daitezen. Bigarren fasean, lurra zigitatu egingo dituzte, lurra gai-

nean polipropilenozko laminak jarriaz. Lan horrekin bi gauza lortzen dira: batetik, zabortegi izandako guneko lurra isolatuta egotea eta gero egingo diren kirol instalazioekin kontaktuan ez egotea; eta, bestetik, goiko urak behera ez iragaztea edo filtratzea.

Azkenik, gaur egun zabortegiaren azpitik pasatzen den errekatxoa azalera ekarriko dute, eta desbideratu egingo dute. Ingruan dagoen Urrutxu baserri ondotik pasatuko da ibilbide berriarekin.

ESANAK

"Lehenbailehen hasiko ditugu Urrutxu berreskutzeko lanok: uztail bukaeran edo abuztu hasieran gurako genuke"

Anjel Biain > Hirigintza zinegotzia

Anjel Biainek, Hirigintza zinegotziak, "datozen bi urteotan orain-dik hasi ere ez" direla egingo esan du.

Proiektua eginda dago eta honakoak batzen ditu: futbol-zelaia, sei kaleko atletismo pista, harmailak, aldagelak, biltegia, gimnasio txiki bat eta arku-tiroa egiteko leku bat. Halako kirol azpiegitura batek tamaina-k ourrekontua du ere: 5 milioi euro. Krisi ekonomiko orokorrak baldintzatuta, oraingoz alde

batera dago proiektu hori; idatzita, baina garai hobeen zain.

Horrek eragin egiten die Oñatiko Aloña Mendi elkarteko atletismo sailekoei; horko kirolariak Ibarra entrenatzen ziren, baina han ere obrak egin zituztenetik, leku barrik geratu dira eta Zumarragara joaten dira entrenatzera. Bada, oraingoz, halaxe jarraitu beharko dute, entrenatzera kanpora joaten, Oñatiko atletismo pista berria egin arte.

DATUA

13
HAUTAGAI

2,8
MILIOI EURO

Urrutxuko lanak egiteko lehiaketa- tara 13 enpresa edo aldi baterako enpresa-elkartea aurkeztu dira, eta denek bete dituzte lehiaketako baldintzak. Oñatiko hainbat dago.

Oñatiko Udalak 2,8 milioi euro lortu diru Urrutxuko lanei aurre egiteko: 1,3 Foru Aldunditik; 300.000, Ihobetik; eta 750.000, Etorri lursail bat saltzeagatik.

ERLIJOA > FRANTZISKOTAR ANAIDIA

Bost mende pasa eta gero, Arrasateko frantziskotar anaidia ixtear

Anaidia itxi arren, zerbitzua ematen segituko
dute Arrasaten; mezak esaten eta katekesiarekin
segitzeo asmoa dutela jakinarazi dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Frantziskotarrak badoaz Arrasatetik. Hiru fraide geratzen dira Arrasateko komentuan eta urrian joango dira hirurak. "Bi fraide Oñatiira joango dira (Bidau-rretara) eta hirugarrena, Tolosara. Arrasateko anaidia itxi egingo dugu", aditzera eman du Iñaki Beristainek, Arantzazuko frantziskotarrak.

MEZAK ETA KATEKESIA

Anaidia ixtreak, baina, ez du ekaniko San Frantzisko eliza ixtea: "Arrasateko kasuan ikusi dugu beharra badagoela eta erabaki dugu pastoralarekin jarraitzea; elizako lanarekin jarraituko dugu, Arrasateko parrokiarekin batasunean, orain arte moduan", zehaztu du Beristainek.

Horrek esan gura du, besteak beste, mezak esaten jarraituko dutela, baita katekesiarekin ere.

Hain justu, Jose Luis Arribalagak, orain arte mezak esaten dituenak jarraituko du lan hori egiten. "Oñatin bizi izango da eta Arrasatera joango da joan beharra dagoenean", dio Beristainek.

Ez dakitena da zer gertatuko den frantziskotarren Arrasateko eraikinarekin, komentuarekin; oraindik ez dutela ezer erabaki aditzera eman du Iñaki Beristain frantziskotarrak.

ANAIIDI BATZUK ITXI EGIN BEHAR

Arrasatekoaz gainera, bestelako anaidi batzuk itxi egin beharko dituztela ere kontatu du Arantza-zuko fraideak: "Geroago eta fraide gutxiago dagoenez, itxi egin beharko ditugu anaidi batzuk". Horiek, baina, Debagoinetik kanpokoak izango dira, Arrasatekoa ixtean gurean Oñatiko anaidia geratuko da-eta bakarrik.

IA BOSTEHUN URTE ARRASATEN

Urriko exodoarekin, beraz, frantziskotarrek amaiera emango dio-te 427 urtean Arrasaten egindako ibilbideari.

Hain justu, 1575era jo behar dugu San Frantzisko eliza eta komentuaren jatorri bila. Jose

Letonaren Mondragón y sus calles liburuan jasotakoaren arabera: Juan de Araotz eta Ascension de Garibai senar-emazte arrasatearei esker hasi zen guztia. Juan de Araotz hiltzear zegoen, eta, seme-alabarik ez zutela-eta, erabaki zuten Zacatecas-en (Mexiko) pilatutako ondasunak komentu hori sortzeko bideratzea, testamentu bitartez, 1575eko ekainaren 13an.

Zazpi urte geroago, 1582ko uztailaren 6an esan zuten aurre-neko meza San Frantzisko eliza eta komentuaren oinarri izango zen kaperatxoan, Juan de Araotz hilobiratzen lekuaren.

Geroago eraiki zituzten orain-go komentua eta eliza, Miguel de Aranguren anaia legoaren gida-

ritzapean; arkitekto gipuzkoarra zen hora.

KLAUSTROA ETA BESTE

Urteekin, San Frantzisko elizari eta komentuari elementuak gehitu zizkioten. Adibidez, 1673an eraiki zuten klaustroa; eta 1695ean aldare nagusiko erretauila. Azken hori Jacobo de Ayesta eta Rafael Sarralde arkitekto bergararrek eraiki zuten, 74 intxaurrondoren enborrak eta bost gaztainondo-ren piezak erabilita.

FRAIDEAK JOAN ZIRENEKOA

Esan beharra dago, era berean, frantziskotarrak ez direla eten barik egon Arrasaten. 1840an, gobernu liberalaren desamorti-

zazioaren aginduz Arrasatetik joan egin behar izan zuten. 1954ra arte beste zeregin batzuetarako erabili zuten komentua. Besteak beste, Udalak hala eskatuta, Isabel II. erreginak eskola moduan eta beneficiertziarako erabiltzeko baimena eman zuen. Tartean, Mesedeetako mojek eskola eta tuberkulosiari aurre egiteko ospitalea sortu zituzten han.

1954an bueltatu ziren frantziskotarrak Arrasateko komentura. Demetrio Garmendia izan zen XX. mendeko aurreneko gidaria (1999ko irailean hil zen).

Eta harrezkero, Arrasaten izan dira fantziskotarrak. Baino gutxi-tzen joan da anaidia. Eta horren ondorioz, adibidez, 2007ko martxoaren 26an hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta frantziskotarren anaidiak komentuaren zati bat Udalari laga eta han Kultura-te izango zena eraikitzen.

Hitzarmenaren arabera, Arrasateko Udalari eman zioten eraikinaren titulartasuna. Horren truke, frantziskotarrek eskubidea izango dute 75 urteotan (10 urtez luzatzeko aukerarekin) komentuaren zenbait lokal erabiltzeko. Eta era berean, hitzarmen horretan erabaki zuten Udalak bere gain hartuko zituela elizako teilitua eta absidea konpontzeko lanak.

SAN FRANTZISKOKO ERLIKIAK**Elizara erlikiak ekarri zituztenekoak**

San Frantziskok erlikiak ere gordetzen ditu. Aurreneko meza esan (1582an) eta sei urterako ekarri zituzten erlikiak, Erromatik, Fray Francisco de Tholosak. Hala jasota du Esteban de Garibaik, memorietan: "En la pared delantera de este hospital entre las dos puertas estaba un altar con su dosel de damasco carmesí, y con él una caja muy labrada de muchas reliquias santas que el padre general trayó de Roma para el monasterio de Santo Francisco de esta villa. Delante del estaban cantando todos los religiosos del pueblo con mucha devoción y alegría". Bestalde, 1963an San Frantzisko elizan egin zituzten berrikuntzak aprobatututa, Udalak Garibairen gorpu-kiak bilatzeko ikerketa bultzatu zuen. 27 hezurdura aurkitu zituzten, baina ezinezkoia izan zen jakitea horietakoren bat Garibairena zen edo ez.

ELIZAREN ERAIKINAK**Eraikin erdi hutsak**

Frantziskotarrak joaten direnean, bi izango dira Arrasaten hutsik geratuko diren elizaren eraikinak: frantziskotarren komentua bera eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxea. Azken hori iaz ekainean itxi zuten, eta nahiz eta kongregazioa (12 moja) ez itxi, eraikinaren zatirik handiena hutsik dago. Galdera da orain zer gertatuko den eraikin horiekin.

Zure sukaldia diseinatu, proiektua egin eta, gainera:

Made in Germany

3.770 €

Hozkailua, ontzi-garbigailua, labea, plaka eta kanpaina.
zure poltsikora egokitzen gara.

ARITZ

erreformak sukaldetak

Tel.: 943 07 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE

- Sukaldeen zaharberritzek
- Gremioen koordinazioa



Maalako Jaiak 09


ARREGI ARTE
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com
**markoak margolanak
ispiluakerakusketak**

Uztailaren 19a, domeka

12:30ean: San Frantziskon meza, Arrabalean hil direnen omenez.

Jarraian: Arrabalako jubilatu guztientzat lurcha Plus Ultra tabernan.

Uztailaren 22a, martitzena

8:00etan: Etxaflero jaurtiketa.

16:00etan: Ume jolasak eta txokolatada.

19:00etan: Txikiteoa.

20:00etan: Goikobaluren ekitaldia.

21:00etan: Afaria.

22:30ean: Musika.

23:00etan: Suzko erruberak.

Plus Ultra

T A B E R N A

Tel.: 943 79 20 57


Casa Ceciaga
Maalako Errebala 3
Tel.-Faxa: 943 79 12 72
Jai zoriontsuak
opa dizkizugu!


NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

Tel.: 943 79 04 34


ELKORO
SAT

Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86

**Monte
taberna**

Tel.: 943 79 20 56

AZOKA > BASERRITARREN AZOKA

Ekologian oinarritutako produktuak

Baserriko produktuez gainera, produktu ekologikoak izango dira bihar Seberren, baserritarren azokan

UBANE MADERA > ARRASATE
Ikasturteko azkeneko baserritarren azoka egingo dute bihar (zapatua) Arrasaten. Hitzordua ohikoa da: 09:00etatik 14:00etara, Seber Altube plazan.

Arrasateko zortzi baserritarrez gainera, Zarauzko, Urretxuko eta Tolosako hiru baserritar ere etorriko dira bihar.

EZTI EKOLOGIKOA ETA BESTE
Honako produktuak ekarriko dituzte: Zarauztik, Blasenea haztegiko produktuak. Fruta-arbolak modu ekologikoan lantzen dituzte, besteak beste, eta sasoia-

ri dagozkion landareak ekarriko dituzte. Urretxutik, berri, Aikur Erle Museoan ekoiztutako ezti ekologikoa ekarriko dute; eta Tolosari dagokionez, bestek best, ahuntz gazta eta esnekiak, Aldabazar baserritik.

Etxekoei dagokienez, zortzi baserritako produktuak ekarriko dituzte: Ikutixo, Askasibar, Enuzketa Aldekoa, Gorostiza, Aranguren, Bidasoro, Etxebarri eta Mietza baserrietakoak.

DATUA
2.000
POLTSA

Baserritarren azokan poltsa birziklagarriak banatuko dituzte; Arrasateko Udalak 2.000 ateratzen ditu erosleen artean banatzeko.



JOKIN MUJICA

Ikerlangoak herri kiroletan lehiatu ziren

Ikerlango langileek joan den eguztenean, uztailak 8, eman zieten amaiera urteko sasoi honetan jokatzen dituzten lanorduz kanpoko kirol txapelketei. Azken saiorako herri kirolak aukeratu zituzten, eta, jakinaz, digutenez, guztira 70 lagun inguru joan ziren Iturripera.

Denetariko jarduerak egin zituzten; besteak beste, lokotx-bilketa, txingak, esku pilota, sokatira eta zaku lasterketa. Gogoz izerditu zuten, beraz. Hori bai, horren ostean bapo afaltzera joan ziren guztiek.

OSPAKIZUNAK > MAALAKO ERRABALEKO JAIAK

Aspaldiko jaien ereduak bizirik dirauela erakusten duten festak

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

lenetan egunean arratsaldean izaten diren haurrendako jolasak nabarmendu dituzte, adierazi dutenez, "aspaldiko jolasak direlako".

URTEROKO EGITARAUAA

Egitarauak ez du aldaketarik izango. Domeka honetan, 12:30ean, San Frantzisko elizan auzoko hildakoen omenezko meza izango da eta, ondoren, auzoko erretiratudako lurcha egingo dute, Plus-Ultra tabernan.

Madalena egunerako -uztailak 22- egitaraua zabalagoa presztatu dute. 08:00etan jaurtikoz dituzten etxfuegoekin hasiko dute eguna. 16:00etan jaien bereizgarri diren haurrendako jolasak eta txokolate-jana izango dira eta 19:00etan txikiteo. 21:00etan herri afaria egingo dute kalean eta afalosteak musika emanaldia eta suzko erruberak izango dira protagonista.

JOLASPARKEAK

Gorostizako jolasparkea berritu egin behar dute

Udalak 20.000 euro inbertituko ditu eta Yor enpresa izango da lanon arduraduna

J.B. > ARRASATE
Erguingo Herri Eskolatik gertu dagoen Gorostiza parkeko jolasgunea berritu egingo du Udalak. Lanok martzeneko Udal Gobernuaren batzarrean esleitu zituzten.

Lanak Gasteizko Yor enpresak egingo ditu. Haurrendako guneak eraikitzen dituen enpresa horrek egin berri du Zerrajerako jolasparkea eta baita, lehenago, Santa Barbarako jolasgunea ikusgarria ere.

ETXOLA TXIRRISTADUNA
Udalak aurreratu dituen xehetasunen arabera, Gorostizako jolasparkeak kulunkak, zalditxo eta -atrakzio onena moduan- etxola txirristaduna izango ditu. 20.000 euro inbertituko dira lanotan, eta helburua da irailerako parke berria gertu izatea.

PUB HAIZEA

**isla da
ile apaindegia**

SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.

Uribarri etorbidea 6 beheko 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: isladaileap@hotmail.com

KULTURA > KONTZERTUAK

Hardcore azkarra eta amorru handikoa gaztetxean gaur Estricallaren eskutik

Guar, egubakoitza, gaztetxean joko dute Estricalla, Blitztraktor, Material Rechazado eta Fight to Life taldeek; kontzertua 22:00etan izango da

A.EZKIBEL/I.BARANDIARAN > ARRASATE
Kuraia eta El Corazon del Sapo taldeetan abeslari izandako Fer Apoak sortutako Estricalla taldearen kontzertua entzuteko aukeera egongo da gaur gaztetxean. Euskal Herrian emango duten bigarren kontzertua izango da. 22:00etan hasiko da. Estricallaz gain, taula gainera igoko dira Blitztraktor alemaniarak eta Arrasateko Material Rechazado eta Fight to Life.

'GIMNASIA REVOLUCIONARIA'
Fer Apoarekin batera Kantabriako Kloakao taldeko musikariak



Estricalla taldeak Euskal Herrian ematen duen bigarren kontzertua izango da gaurkoia.

doinu batzuk grabatu ditu *Gimnasia revolucionaria* lan berri horretarako.

BERLINDIK ARRASATERA

Blitztraktor taldeak punk-hardcorea egiten du eta Berlingoa da. Euskal Herrian bira egiten dabilta, eta Arrasateko gaztetxean ere izango dira, aspaldiko oroitzenaren gogoratzeko. Izan ere, Blitztraktor taldean, Euskal Herrian ibilitako Fuck You Crew eta Ao Wollok taldeetako kide ohiak daude.

ARRASATEKO BI TALDE

Arrasateko gaztetxeko taula gainera herriko bi talde ere igoko dira: Material Rechazado eta Fight to Life. Material Rechazado punk taldea da, Eskorbuto eta RIPen espiritu daukana. *Cárceles de asfalto* diskoa atera berri dute.

Fight to Life Arrasateko street-punk taldea da. Gorde (ahotsa), Julen (gitarra), Vito (baxua) eta Igorrek (bateria) osatzen dute taldea. Euren musikan eragina izan duten taldeak izan dira, besteak beste, Cock Sparrer eta Zakarrak.

ARETO FUTBOLA > ZALDIBAR, 24 ORDU

Bihar eta etzi, 24 orduko txapelketa

A.E. > ARRASATE
Aste bukaera honetan jokatuko dute Arrasateko 24 orduko areto futbol txapelketa Zaldibarren. Izenemate epea dagoeneko amaitu da, eta gaur bertan jakinaraziko dute antolatzaleek partiduen ordutegiak euren webgunean, www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com helbidean.

Talde bakotzak 40 euro ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartzeko. Antolatzaleek partiduak jokatu aurretik batuko dute dirua, Zaldibarko pilotalekuaren bertan.

20 MINUTUKO PARTIDUAK

Arrasateko 24 orduko txapelketaaren arautegia Zaldibarko areto futboleko txapelketaren bera izango da. 24 orduko txapelketan, partiduak 20 minutukoak izango dira eta, gutxi gorabehera, talde bakotzak hiru edo lau partidu jokatu beharko ditu. Eta jokalariek talde bakarrean jokatu ahal izango dute.

24 orduko txapelketa antolatzen den bigarren aldia da; lehenengo 2007an egin zuten. Orduan 18 taldek parte hartu zuten eta 09:00etatik 09:00etara ibili ziren futbolean.



Zaldibarko areto futbol txapelketa.

> SASKIBALOIA
Gorka Zurututzak kadeteen ardura hartuko du

Ointxe taldera itzuliko da Gorka Zurututzak denboraldi berrian. Oraingoan, baina, nagusien ardura izan beharrean, beheko mailako mutilekin egingo du lan. Hain zuzen, Zurututzak kadete mailako mutilen ardura hartuko du. Ointxe elkartearren esanetan, Zurututzak "heziketa edo trebakuntza" ardurak izango ditu aurrerantzean.

Ointxe elkartean goi mailako titulua duen hirugarren entrenatzalea da Zurututzak. Beste biak Jose Mari Baltzategi eta Javier Zurbano dira. Bestalde, Mikel Arexolalabarrek infantil mailakoen koordinazioa eramango du.


Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82


ERRASTI KRISTALDEGIA
**Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ONDAREA > SEMINARIOKO ELIZA

Seminarioko elizako indusketa arkeologikoa abuztuan hasiko da

Uztailean prestaketa lanekin bukatuko dute eta abuztuan, irailean eta urrian egingo du indusketa Zehazten enpresak; eta lanok gizarteratzeko, bisita gidatuak antolatuko dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Dagoeneko guztia prest dago Seminarioko elizako indusketa arkeologikoari ekiteko. Hain justu, eguztenean eman zituzten indusketaren nondik norakoak. Aurrez penean izan ziren Mikel Elkoroberezibar, Udaleko Kultura Ondare batzordeburua; Xabier Aranburu, Udal Museologoa; eta indusketa zuzenduko duten Zehazten Zerbitzu Kulturalak enpresako bi arkeologo: Jesus Perez Centeno –indusketaren zuzendaria– eta Xabier Alberdi –indusketako zuzendariordea eta gizarteratzearen arduraduna.

2007an Seminarioko elizan egindako zundaketen jasotako emaitza garrantzitsuen ondorioz egingo da indusketa hau. Izen ere, zundaketa haietan frogatu zen aztarnategia emankorra dela.

Bada, ikerketa arkeologiko-historiko horrek duen garrantzi zientifikoaz haratago doa Udalaren asmoa, Kultura Ondare batzordeburu Mikel Elkoroberezibarrek azaldu zuen moduan: "Garrantzi handia du indusketak, aztarnategi emankorra izanik, eman ditzakeelako Bergarako historiarenezagutzan sakontzeko baliagariak izan daitezkeen datuak eta informazioa. Baino hori guztia maila zientifikoan geratu barik, Udaletik berebiziko garrantzia ematen diogu zabalkundeari; herritarren artean informazio hori dibulgatzeari, nondik gatozen jakitea garrantzitsua delako".



Xabier Aranburu, Mikel Elkoroberezibar, Xabier Alberdi eta Jesus Perez Centeno, Seminarioko elizan.

MONIKA BELASTEGI

ESANAK

"**Garrantzi handia eman diogu lanon zabalkundeari; hala, herritarrendako bisita gidatuak egingo dira, besteak beste"**

Mikel Elkoroberezibar > Zinegotzia

"**Bergarako historiaren gainean erantzunik ez duten hainbat galdera erantzun nahi ditugu indusketokin"**

Xabier Alberdi > Arkeologoa

egiturak– eta Alet enpresak –ehuna– egingo dute... Guztira 15 bat lagun ibiliko dira.

GIZARTERATZE PROZESA

Indusketa lanak ezagutzera emateko bisita gidatuak egongo dira

Indusketa lanak gizarteratzeari garrantzi handia eman dio Udalak. Hala, lanok eta bertako aurkikuntzak herritarrengana iristeko programa bat diseinatu zuen Zehazten enpresak.

Batetik, bisita gidatuak antolatu dituzte eta bertatik bertara ikusi ahal izango da arkeologo taldea lanean. Dagoeneko ikastetxeetako ordezkariekin egon dira ikasleekin bisitak egiteko. Horrekin batera, interesa duten herritarrendako ere egingo dituzte

bisita gidatuak. Bisitok hasiko dira abuztuaren 3an eta hil horretan barrena astelehenetik egubakoitzera izango dira, iluntzean. Irail eta urrian, berriz, astelehenetik zapatura izango dira.

Bestetik, indusketan barrena aurkitutako materiaia ikusgai jarriko dute. Hain justu, materialaren kudeaketarako laborategia jarriko dute elizan.

Azkenik, informazioa zabaltzeko bideak jorratzeaz gain, lanen bilakaera jasoko duen DVDA ere egingo dute.

ABUZTUTIK URRIRA

Indusketa arkeologikoa abuztuan 3an hasiko da. Indusketa mekanikoarekin hasiko dira, Xabier Alberdi indusketako zuzendariordeak azaldu zuenez: "Makina batek zorua zulatuko du jatorrizko geruzara iritsi arte. Irailean arkeologo taldeak ekingo dio lanari".

Elizaren aurreko aldean hasiko dira lanean, On Andres de Madariaga, Calatravako Zaldun

eta Peruko Kontuen Auzitegiko Kontatzaila Nagusia izan zenaren mausoleoa, eta handik atzerantz egingo dute. Alberdik hilobi horren garrantzia azpimarratu zuen: "Madariagaren hilobian arroparik egonez gero, aurkikuntza garrantzitsua izango da, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako halako pertsonaien arroparik apena dago-eta. Bestalde, artelan ikusgarria da, eta ez oso ohikoa".

LANTALDE ZABALA

Ardura Zehazten enpresako arkeologoek izango duten arren, indusketaren fase ezberdinietan beste aditu batzuen laguntza ere jasoko dute: giza eta fauna aztarnen azterketa antropologo eta paleontologo adituek egingo dituzte; balio historiko-artistiko handiko zenbait eraikuntza eta material arkeologikoren tratamendua eta zaharberriritzea Petra enpresak –harrizko

HELBURU ZIENTIFIKOAK

Elizaren ikerketa historiko-arkeologikoak hainbat helburu zientifiko ditu, edo, Alberdi arkeologoak esandako moduan, "erantzunik ez duten hainbat galderari erantzuna eman", besteak beste: Bergarako hiribildua sortu aurreko (1268) Ariznoa izeneko herrixkaren aztarna posibleak arkeologikoki dokumentatzea eta elizaren azpiko pareta handiaren jatorria eta eraikuntza ezaugarriak ezagutzea, hiribilduko harresiaren zati bat izan daitekeen edo ez argitzea. Horrekin batera, saiatuko dira jatorrizko hiribilduaren eta errabalaren hedapenak zehazten.

Lehenengo emaitzen txostena urri bukaeran prest izango dute la azaldu zuen Alberdi arkeologoak; behin betikoa, berriz, "Eguberriarrikorako".

Kayak Taberna

Abuztuan zabalik

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



EGUERDIAN eta GAUEAN

- Plater konbinatuak
- Ogitarrekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

bere ustez



Jose Angel Mikeo

Probintzia zilbor

Bizi dugun probintzialismo honek apur bat aspertuta nauka dagoneko. Mugan bizi garenok inongo arazo barik mugarik ez balego bezala bizi gara. Bainabada probintzia lurrarde-eremu itxi eta birpentsa ezinezko irudikatzen duenik ere.

Ez dakit zenbat kilometroa izan behar duen euskal hiritar batek autopista baterako sarrera, tren geltoki bat edo aireportu bat. Debagoienetik 40 km barruan bi aireportu daude, eta 100 km barruan, ordubetera, bost! Dena den, Hondarribiko aireportua luzatzekotan dabilta, nahiz eta Bia-

"Debagoienean, Gipuzkoa garenez, Lurraldebusiek ezin gaitu Elorrioraino eraman"

rritzekoan hogei kilometrora izan... Non da Donostia-Baiona hiria? Beste ikuspegi batekin ez ziren ba egin behar gauzak mugak gaindituz?

Debagoienean, bitartean, Gipuzkoa garenez, Lurraldebusiek ezin gaitu Elorrioraino eroan, han Bizkaibus hartu eta Bilbora edo Bizkaiko azken muturrera joateko. Gipuzkoan ez da halakorik, landaguneak abandonaturik daude... autoriak ez baduzu galdua zaude.

Baina lasai, aireportu taxuzkoia izango dugu eta, probintzia osoa harrotzeko modukoa. Eta Donostian metroa! Eta batetik bestera AHT! Hogei minutuan hurrengo aireportura joateko! Hala ere, oraindik ez dugu Internetik etxearen, eta, dirudinez, ez dago ardua probintzialik *lurrarde guztian*, edonork, izan dezan...

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

JENDARTEA > OSASUNA

Arratoien kontrako zerbitzua kontratatu dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Lurrazpiko sarean dagoen arratoi populazioa kontrolatzeko Higiene Ambiental ISS enpresaren zerbitzua kontratatu du Udalak bigarrenez, urte osorako.

Arratoi kopurua kontrollatzenten dute pozoiarekin; pozoya arketetan botata. Herria zortzi

sektoretan banatuta dute eta pozoya botatzen dute bidegurutze- etan dauden arketetan, hala toki bat baino gehiagotik datozen arratoiak akaba ditzaketelako.

Zauritu eta odolustu

Erabiltzen duten pozoiak funtziobikoitza du: batetik, arratoiari

zauria egiten dio, eta bestetik, antikoagulantea denez, arratoiak odolustu egiten da. Hala, 24 edo 48 orutan hil egingo da arratoiak.

Gizakiak zein beste animalia- ren batek janez gero, pozoiak kalte egingo die -K Bitamina da antidotoa-. Dena den, arketetan botatzeak arriskua nabarmen

txikitzen du Higiene Ambiental ISSko ordezkarien esanetan. Gainera, prebentzia areagoteko, herritarren bistara ez dauden arketak aukeratzen dituztela ere azpimarratu dute.

HILEAN BEHIN

Pozoa botatzeko bi kanpaina egi- ten dituzte urtean: bata, martxoan; bestea, urrian. Kanpainok hiru egun irauten dute eta herriko zortzi sektoretan botatzen dute pozoa. Horrez gain, hilean behin ere botatzen dute, baina sektoreka. Eta horrez guztiaz gain, herritarren kexuren bat egon bada orduan ere etortzen dira eta arratoiak ikusitako lekuaren botatzen dute.

oharrak

ORDUTEGI ALDAKETA

> Farmaziek oportxandak egin- go dituzte

Herriko farmazien opor txandak hauek izango dira: uztailaren 15etik abuztuaren 15era, Zabala eta Urritikoe- txa; abuztuaren 16tik irailaren 16ra, Estella eta Alvarez- Mozos; eta abuztuaren 1etik 31ra, Guallar.

ZUZENKETA

> Kirol taldeendako laguntzen epea da irailaren 21era arte

Udaletik ohartarazi dute- nez, kirol taldeendako diru- laguntzetarako eskaria egi- teko epea bukatuko da irailaren 21ean, eta ez irailaren 7an, aurreko astean jakinara- zizuten moduan. Udalak 2009. urtean 110.000 euro bideratu ditu laguntzotarako. Eskae- rak aurkezteko ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00, udaletxeko erre- gistro orokorrean. Dirugun- tza horien oinarriak eskura daitezke www.bergara.net helbidean.

TXOSNAK

> San Martin jaietan txosnak hartzeko deialdia egin du Udalak

San Martin plazan eta Seminarioko patioan jarriko dituen txosnak hartzeko deialdia da. Bergarako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteeak aurkez ditzake- te eskaria. Epea bukatuko da uztailaren 24an, 13:30ean.



OIHANA ELORTZA

Labegaraietako zuloa konpondu egin dute



Labegaraietan, Agirrebeñako zubiaren muturretako baten, bidegorriaren kontra zegoen zuloa konpontzen jardun dute asteon Udaleko langileek. Auzotarrak pozik daude konponketarekin: "Arriskutsu zegoen, sasiz estalita, eta behin auzoko ume bat zulotik erori zen, errekaraino". Udalari behin baino gehiagotan eskatu diote zuloa konpontzko, eta dagoeneko badihardute.

Japoniako ECHO etxeak Bergaran bisitari

Japoniako ECHO etxeko ordezka- riak Bergaran izan dira asteon. Etxe horrek Debagoienean duen banatzaileari bisita egiten izan dira: Comercial Brunet-i, hain justu ere. Japoniarrek jakin nahi zuten Bergarakoak ze iritzi duen tresnen gainean. Iruian Enrique Brunet, Japoniako eta Kataluniako ordezkariekin.



ZIORTZA MARTIN

trinmer
telecomunicaciones

t d t televisión
digital
terrestre

**Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

**TRINMER Telekomunikazioen instalatziale ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR**
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

disdira

**ile apaindegia
edertze gela**

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

**Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.**

**Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09**

MUSIKA > TIRRI TARRA

Tirri Tarra izango da irailean pilotalekuau

Kontzertua Udal Pilotalekuau izango da eta Sotto Voce, Bergarako Orfeoi eta Aritzeta abesbatzaren lagunza izango dute Tirri Tarrakoek

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Opporraldiaren ondoren, irailaren 12an Tirri Tarra fanfarreak kontzertua emango du Udal Pilotalekuau, 22:30ean. *Argibeltz* ikus-kizuna ekarriko dute Pasai San Pedrokoek Bergarara. Tirri Tarraren urteurrena ospatzeko herriz herri egiten duten kontzertua da irailean eskainiko dutena pilotalekuau; fanfarrei laguntzen, Sotto Voce orkestra, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatza ibiliko dira.

BI LANETAN OINARRITUKO DIRA
Titti Tarra fanfarreak 2006an atera zuen *Argibeltz* diskoa, eta, hain zuzen, disko horretan oinarrituko dira iraileko kontzer-



Tirri Tarra fanfarrea.

GOIENKARIA

tuan. "Argibeltz lanaz gain, orain grabatzen gabiltzan *Internas* maketa berriko lanak ere eskainiko ditugu", azaldu du Igor Carballo Tirri Tarrako kideak.

Tirri Tarrak haizea, perkusioa, teklatua eta beste hainbat musika tresna erabiltzen ditu; gainera, fanfarreak bi ahots solista ditu. Esan beharra dago kon-

tzertu guzietan dutela Sotto Voce orkestraren lagunza.

HASI DIRA ENTSEGUAUAK

Dagoeneko hasi dituzte entsegua. "Bergaran entseatu dugu. Gustura geratu gara, abesbatza gazte eta onak dira", dio Carballok. Irailean Pasai San Pedron egingo dute entsegua orokorra.

> ERAKUSKETA

Txiki Agirre 'Keixeta'-ren margoak domekara arte egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan

Hilaren 18ra arte (domeka) egongo dira ikusgai Aroztegin Txiki Agirre Garate *Keixeta*-ren margolanak. Uztailaren 3an ireki zen erakusketa eta ordutik hona lagun asko joan da erakusketa ikustera. Aroztegiko ordutegia hau da: martzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, hilaren 24an Mikel Garate Arakamaren margo era-kusketa zabalduko dute Aroztegin.

> MUSIKA

Aritzeta abesbatzak kontzertua emango du bihar Santa Marina parrokian, 19:45ean

Bihar, zapatua, Aritzeta abesbatzak kontzertua emango du Santa Marina parrokian. Kontzertua 19:45ean hasiko da. Gogoratu behar da aurten bete duela abesbatzak 30. urteurrena.

Domekan, ostera, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Udal Pilotalekuau. Eguna kalejirarekin hasiko dute, 11:00etan. Ondoren, kontzertua emango dute. Alfredo Gonzalez Chirlaquearen gidaritzapean, *Gallito*, *Euskeria*, *Waltz nº 2*, *Oregon* eta *The girls of Jobim* lanak eskainiko dituzte.

> 'OSTIRAL MUSIKALAK'

Ipar Carolinatik etorritako musikariak girotuko du gaur Espolioa country musikarekin

Uztaleko egubakoitzak girotze aldera, *Ostiral musikalak* jaialdiaren barruan Bill Lyerlyk kontzertua emango du gaur Espolioan. Saioa 22:30ean hasiko da.

Lyerly AEBetako Ipar Carolinatik etorritako musikaria da, eta gaur egun Iruñean bizi da. Txikitatik izan da musika haren zaletasuna. Hala, 11 urterekin hasi zen jotzen, eta 1975ean Supergrit Cowboy sortu zuen. 80ko hamarkadan, berriz, Bill Lyerly Band sortu zuen. Countryari, bluesa eta rock-and-rolla gehitu dizkio.



Bergarako txirrindulariak Tourmaleten

Joan den asteburuan Bergarako Txirrindulari Elkarteko 30 lagun Pirinioetan izan ziren, hango errepeideekin gozatu eta, aldi berean, sufritzeko asmoz. Bergaratik irten eta lehenengo geldialdia Lourdesen egin zuten; Bergarako hiru lagun bizikletan joan ziren haraino, bi etapatan.

Zapatuan, denek elkarrekin 150 kilometroko etapa egin zuten, tartean Tourmalet igota -argazkian-. Domekan, berri, Tourreko mendiko etapa ikusi ahal izan zuten, eta errepeideko maldak maillot urdinekin bete.

PILOTA > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Finalerako sailkatzeko partidua gaur

Bergarako pilotariek 2-1 irabazi zuten joan den egubakoitzean Iruñean; gaur, 20:00etan hasiko dituzte itzulerako partiduak

XABIER URTZELAI > BERGARA
San Fermin giroan, joaneko partidu onak jokatu zituzten Bergarako pilotariek joan den egubakoitzean. Eta, Euskal Herriko herri arteko txapelketako finalean egoteko gaur, egubakoitza, errematatu behar dute lana Bergaran (20:00).

Kadete mailan, joan den astean egindako moduan Igor Igarra tuak ordezkatuko du kampora ikastera joan den Mikel Gallastegi, baina hori izango da Bergarako seikotean izango den aldaketa bakarra.

IRUÑEKOEK, ALDAKETAK
Iruñeko pilotarien artean, baina, aldaketa handiagoak izango dira: "Aitortu ziguten ez zutela aurreikusten Nafarroako herri arteko irabaztea, eta gazte mailako pilotariek aspaldi zuten Mexikora joateko bidaia hartuta". Hala, gazte mailan ordezkoek jokatuko dute: "Baina ez naiz batere fidatzen, ordezkoek ere maila oso ona izango dutelako. Seniorretan ere hala gertatu zen, Okiñenak ez zuen jokatu gaixo zegoelako, baina ordezkoa oso ondo ibili zen", aurreratu du Reyes Azkoitiak.

"ZIRIMIRIA EGIN DEZALA"
Hori da Azkoitiak gura duena: "Uztailean jendeak galdu egiten den egubakoitzetan pilotalekura etortzeko ohitura, eta, eguraldi petrala egiten badu, seguru enik jende gehiago etorriko da gu animatzera. Herriko zaleen berotasuna behar dugu pilotalekuaren".

bergaran,gorlako kantinan, elosu gainean,azkoitira bidean,zelaian barrena.

Uztailak 25, Larunbata gaueko 9etan hasita

Dantza eta Sentimentu jaia

pikuitxa roots 2009

EMON (Bergara)
LUTXANA CREW (Bilbo)
DIGWASH (Hendaia)
DJ Kale Nagusiko
Sound Sister

Gorlako Kantina, Asteartetik Igandera irekita. Pintxoak, hamarraketa, otartekoak, bazkari eta afariak etxe-etxeak. Etorri dantza egitera izarren azpian

kontaktuak: Jairako - 600.649.686
Kantinarako - 627.818.212

UDALA > INFORMAZIO GUNEA

Herriaren gaineko berriak dituen ukimen-pantaila jarri dute Arkupen

Teknologia berrien aldeko apustua egin du Udalak eta 'bluetooth' sistemaren bitartez hilean birritan jasoko dute informazioa herritarrek telefonoan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Ukimen-pantaila duen informazio gunea jarri berri du Udalak Arkupe kultura etxearen. Herriaren gaineko argibide asko daude bertan, baita herritarrendako interesgarriak diren bestelako argibide batzuk ere.

Arkupeko egitarauaren berri jaso daiteke informazio gune

horretan, udal webgunera sartzeko aukera eskaintzen du eta beste webgune batuetara ere bai: www.gipuzkoa.net, www.euska-di.net... ONA txartela non eskuira daitekeen argibideak ematen ditu eta lehiaketa publikoen berri ere badakar. Gainera, mezuak bidaltzeko aukera eskaintzen du bai poltsikoko telefonora, bai helbide elektroniko batera. "Herritarrek informazioa eskura izatea gura dugu eta horretarako teknologia berrien aldeko apustua egin dugu", azaldu digu Inaxio Garro alkateak. Gainera, Wifi gunea da Arkupe, hau da, Interneten sartzeko aukera dute herritarrek.

INFORMAZIOA 'BLUETOOTH'-AREKIN
Bestalde, *bluetooth* sistemaren bitartez informazioa bidaltzen

dute Arkupen telefono mugikorrera; baita Zainduz gimnasioan eta KZgunean ere. Hilabetean birritan jasotzen dute informazioa herritarrek. Uztailean, esaterako, joan zen zapatuan egin zuten Hip-Hop Egunaren berri bidaliz zuten eta orain Andramaixetako egitarauaren gaineko argibideak bidaliko dituzte. Hori guztia jasotzeo nahikoa da norberaren telefono mugikorrerako bluetootha aktibatuta izatea.

INFORMATIKARI BEHARRA

Udalak, bestalde, informatikaria gura du udal eraikinetan dauden informatikako kontu guztien mantendimendu lanak egiteko. Orain Aide enpresak egiten dizkio lan horiek baina otsaile-



Arkupen jarri duten ukimen-pantaila informazioa jasotzea.

MIRARI ALTUBE

an aurkeztutako lanpostuen zerrendan informatikaria haraztua onartu zuten. Lanpostuaren oinarriak gertatuko dituzte uztailean eta lehiaketa deia irailean egingo dute. Lanpostua beteko

duen langilea informatikaria edo informatikako ingeniaritza eindakoa izatea gura du Udalak eta 4. mailako hizkuntza eskakizuna egin du. Egun erdiko lana izango da.



Arizmendi, garaile hirunako txapelketan

Arizmendi ikastolako, Bordeleko eta Mirandako guraso arteko hirunako futbol txapelketa jokatu zuten zapatuan Ibarra futbol zelaian. Hirugarren aldiz zetozenean Bordelekoak eta lehenengo Mirandakoak. Guraso arteko harremana sendotzea helburu duen txapelketan Arizmendiko jokalariak izan ziren nagusi: Arizmendi 2-Bordele 1; Arizmendi 2- Miranda 1; eta Miranda 3-Bordele 3.

> EUSKARA Loramendi EEk antolatutako zozketan 157 da zenbaki saritua

Loramendi Euskara Elkarteak zozketarako txartelak saldu ditu azken hilabetean, elkarrearen dura batzeko asmoarekin. Egin dute zozketa eta 157 izan da zenbaki saritua. Txartel hori maiatzean egindako Euskararen Eguneko bazkarian saldu zutela uste dute antolatzaleek. Saria da pilotu partidu baterako bisarrera eta Belar Meta dendaran gastatzeko 100 euroko bonua.

Bestalde, gaur jokatuko dute Loramendik antolatutako emakumeen arteko frontenis txapelketako finala.



DESKONTU BEREZIAK
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA
ASEGURUETAN
INFORMA ZAITEZ!

Errekabarren 3 ARETXABAleta
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAleta

Mobiliario
RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Odei Vazquez > Karate jokalaria

"Espainiako txapelketarako sailkatzea da nire helburua"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Senpai da Odei Vazquez; hau da, Lehen Dan gerriko beltza duen karateka. 5 urte zituela hasi zen karatean aitaren eskutik eta 16 urte dituela Espainiako txapelketa jokatzea du helburu.

Azal egiguzu zer den Lehen Dan gerriko beltza.

Gerriko marroiaren ostean datorrena da, azkena; 13 eta 16 urte arteko gerriko beltza infantil mailakoa da eta 16 urtetik gorakoa helduena. Horren barruan mailak daude eta Lehen Dan lehenengo mailari dagokio. Horiei Senpai esaten zaie.

Hori lortzeko aurrez lan handia egin duzu?

Bai; probak hiru atal ditu: teknika, kumitea eta teoria. Teknika barruan erakutsi behar da plakaketan egiten, eskuko teknikak eta ostikadak; baita kata ere. Kumitea, osteria, borrokan egitea da; lehen bi borrokak galdu egin nituen, baina bigarren aukeran kumite librea egin eta aurrera pasatzea lortu nuen. Teoriari dago kionez, galderak erantzun behar dira, baina ez ziguten galdu.

Hori lortzeaz gain hainbat txapelketatan jardun duzu, ezta?

Bai, Gipuzkoakoa eta Euskadikoak jokatu ditut eta hirugarren geratu nintzen hor. Euskadikoan sailkatuz gero Espainiakora pasa zaitezke, baina lehen biak bakarrik hartu zituzten. Autonomia arteko txapelketa ere jokatu nuen, Logroñon (Errioxa), eta Debagoieneko klub artekoa ere bai.

Zer lortu gurako zenuke?

Espainiako txapelketa jokatzea, hori da nire helburua azken urteotan. Denboraldi honetan jokalari oso onak egokitzaizkit nire mailan –Espainiako txapelduna eta hirugarren geratu-

"Euskadiko txapelketan hirugarrena izan nintzen, baina ez nuen lortu Espainiakora sailkatzea"

"Hiru entrenamendu saio egiten ditut astean; txapelketetan gehiago"

takoa–; hortaz, zaila zen sailkatzea. Horrez gainera, karateko epaile edo entrenatzaile izan gurako nuke.

Zenbat entrenatzen zara?

Astean hiru saio egiten ditut, baina txapelketaren bat izanez gero gehiago, lau edo bost. Saio guztiak ez dira karatean jarduteko, alderdi fisikoa ere gertatzen dut: azkartasuna, malgutasuna... Orain oporrik hartuko ditut hilabete inguru eta abuztu bukaeran berriro hasiko naiz.

Aita duzu entrenatzaile; one rako da hori?

Batzuetan bai, edozein momentutan entrena naitekeela-

ko harekin; txapelketa bezperan, esaterako. Baino gainerako ikasleekin baino zorrotzagoa da askotan nirekin, gogorra ere bai, nahiz eta jakin niri laguntzearren egiten duela.

Aretxabaletan talde polita dago karatean.

Bai; txikienak 20 edo 25 dira, baina gero utzi egiten dute eta nagusiak bederatzi gara. Futbolala nahiago izaten dute gehienek; niretako, osteria, kirola baino gehiago da.



Odei Vazquez entrenamendu saio hasieran, martitzenean.

M.A.



Udalbatzako kideak uztailaren 8an, osoko bilkura egin bitartean.

beharreko zela esan ziotela gainerako taldeek "hortaz, utz diezaiotela gobernuari aurkezten, oraindik bi hilabete bakarrik dramatz-eta lanean", esan zuen Ainhoa Sagarrabiak.

KIROL ETXERAKO MAILEGUA

Plan ekonomiko-finantzarioa aurkezu zuten, hain zuzen, Aldundiak oniritzia eman eta gero. EA planaren aurka azaldu zen "Aldundiako tramitazioa pasatzea duelako bakarrik helburu, eta ez da serioa". Gainerakoek onartu egin zuten plana. Zukatzeko, kirol etxe berria egiteko mailegua onartu zuten. Kutzak egindakoa zela proposamenik onena iritzi zioten guztiek, 8.265.000 euro, eta onartu, EAkoek aurka bozkatu arren proiektuarekin ez daudelako ados.

LEHIAKETA > ANDRAMAIKETAKO ESALDIAK

Maddi Bengoetxearen esaldia erabiliko dute jai egitarauan

Prebentzio Zerbitzuak deitutako esaldi lehiaketara 65 aurkezta dituzte

M.A. > ARETXABAleta

Hautatu dituzte Andramari jaiak girozko esaldirik politenak. Jai egitarauan agertuko dena Maddi Bengoetxeak asmatu du eta honakoa da: *Hobe ezetz esaten ausartzia, gero eztau bali-*

xo ta damutziak! 120 euro jaso ditu berak.

Pegatinak egiteko, osteria, beste hiru esaldi erabiliko dituzte: *Atzo sagar ure, gaur zer gure, bihar iturriko ure, etzi! logure, Julen Abasolok asmatutakoa; Andramaixetan giro onean eta lagunen artean, Mai- len eta Paulak egindakoa; eta Emaidazu atseden Andramari ta siesta ordue egitarauen jarri!,* Maddi Bengoetxearena. Hiru horiek asmatutakoek 60 euro jasoko dituzte.

UDALA > EZOHIKO OSOKO BILKURA

Eduardo Puellesen hilketa gaitzetsi dute

M.A. > ARETXABAleta

Ezohiko osoko bilkura egin zuen Udalak joan zen eguztenean, hilak 8. Eduardo Puelles Garcia poliziaren aurkako atentatua gaitzetsita hasi zuten bilkura. Hiru mozio aurkezta zituzten: PSE-EEk proposatua, Eudelek proposatua eta Legutioko atentatua gertatutakoan Udalak onartutakoa. Azken hori onartu zuten baina moldaketa bat eginda, PSE-EEko zinegotziek argi utzi zute-

lako "politika eta gaitzespina ez direla nahastu behar".

Eusko Alkartasunak, osteria, Udal Legeari buruzko mozioa aurkezta zuen. Udalbatzako kide guztiak ados azaldu ziren esaterakoan behar-beharrezko dela legea, baina PSE-EEkoak mozioaren aurka azaldu ziren. Esan zuten bere garaian PSE-EEk aurre-proiektureko proposamena eztabaidatu gura izan zuela legebiltzarrean eta hori gobernuak egin



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta
Tel.943 77 00 33/79 42 56

ZERBITZUAK > EGUZKI AUZOKO GIMNASIOA

Gimnasioa kudeatzeko deialdia hutsik geratu da

Procedura irekia proposamenik gabe geratu ondoren, procedura negoziatua hasiko du Udalak hiru enpresa ezberdiniek datozen egunetan

MIREIA BIKUÑA > ANTZUOLA

Antzuolako gimnasioaren erabilerak eta kudeaketa kontratuaren esleipena hutsik deklaratu zuen Udalbatzarrak uztaileko osoko bilkuran.

Egzki auzoan dagoen gimnasioaren kudeaketa emateko procedura irekia deitu zuen Udalak, baina enpresek ez dute proposa-

menik aurkeztu. Hortaz, orain procedura negoziatua ri hasiera eman behar zaiola esan zuen Antzuolako Udaleko idazkariak. Enpresekin negoziatzen hasi aurretik, baina, hausnarketa egingo dute. "Ikusi eta aztertu egin beharko dugu zergatik ez duten proposamenik aztertu.

Baldintzak berriro aztertuko ditugu, eta interesgarriak izan daitezkeen oinarriak zehaztu beharko ditugu", esan zuen Pedro Iturbe alkateak.

IREKIERA ATZERATU

Procedura negoziatua hasten dutenean, zuzenean hiru enpresekin egingo dute berba euren

proposamenak ezagutzeko. Lehen deialdia hutsik geratzean, gimnasioaren irekiera atzeratu egingo dute. "Gure asmoa zen kudeaketa zerbitzua oporen aurretik esleitza, ondoren urri aldera zerbitzua ematen hasteko. Bainorain, ikusi egin beharko dugu. Procedura negoziatuko epeak betetzen baditugu, iraileko osoko bilkuran esleituko genuke zerbitzua", esan zuen alkateak.

340 METRO KOADROKOA

Antzuolako gimnasioa Eguzki auzoko etxe tasatuen beheko solairuan dago. Oraindik ez ditutte lokala txukuntzeko lanak bukatu. "Azken ukituak egiten dabilta eta oporrak hartu aurretik bukatuko dutela espero dugu", esan digu Hirigintza eta Zerbitzuak batzordeko teknikari Valen Moñuxek. Gimnasioak 340 metro koadroko azalera du.

KIROLA > DONOSTI CUP TXAPELKETA

Gustura Donostian egindako lanarekin

M.B. > ANTZUOLA

Antzuola izeneko taldea Donosti Cup txapelketako final laurdean kanporatu zuten. Ezin izan zuten aurrerago egin, baina taldeko kideak gustura bueltatu dira Donostiatik. "Oso ondo pasa dugu, eta pena izan da finalerditarako txartelik ez lortzea, penalti jaurtiketan galdu genuen eta. Hurrengo urtean itzuli egingo gara", esan digu taldeko kide Ander Iturbek.

PENALTI JAURTIKETATAN

Antzuolarrek B-19 mailan jokatu zuten. Lehen faseko partiduak Lotura, Easso Sport, Real Tanger A eta Antiguotarrak taldean aurdeak kideak gustura bueltatu dira Donostiatik. "Oso ondo pasa dugu, eta pena izan da finalerditarako txartelik ez lortzea, penalti jaurtiketan galdu genuen eta. Hurrengo urtean itzuli egingo gara", esan digu taldeko kide Ander Iturbek.

Final laurdenetan F.C. El Norte taldearen aurka jokatu zuten. Lehia berdinetarekin bukatu zuten eta penalti jaurtiketan erabaki zen: antzuolarrek bost jaurtiketatik hiru gol egin zituzten, eta besteek, lau.



Donosti Cup txapelketan parte hartu duen taldea.

GOIENKARIA

bere ustez



Tomas Larrañaga

Krisia heldu da gure baserrietara

Guretzat EREak edo *erre-konbertsio* hitzak ez dira berriak. Lehen sektorean aldakuntzak egunero gertatzen dira. Horren harira baserriak espezialdu eta kopuru handiagoak lantzen ditu, batzuk fabrika edo granja intentsiboetara bideratuz, eta beste batzuk, ekologikorantz.

Guztiok saltzeko orduan, arazo berdintsuekin topatzen gara, kontsumitzaleen ohiturak aldatzen joan dira, eta superfizie handiak nagusitu dira. Eurek gehiengoa salten dute.

"Arazoak arazo, salmenta zuzena da baserritarrei gelditzen zaigun irtenbidea"

Arazoa. Baserri txikiz osatuta dagoela gure bailara, eta ez ditugu ekoizten kantitate handiak.

Urtea osatu behar dugu eta kopurua behar da. Horri erantzuna emateko, baserritarrok bildu beharrean aurkitzen gara, baina kopuru txikia daukagu, eskaintza bateratzeko.

Arazoak arazo, salmenta zuzena da gelditzen zaigun aukera, eta aukera ona da, etekinak eta kontrolak geure eskuetan jarraitzen dutelako, guk jartzen diogu prezioa geuk ekoiztutako elikagaiei, eta guk daukagu harremana bezeroarekin.

Merkataritza-gune handiek eskaintzen dituzten baldintzek baserritarren etekina eta etorkizuna txikitzen dute.

m'a Paz
ARGAZKIAK

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66 ANTZUOLA

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

Etxeko berezitasuna:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkargauak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martxetenetan itxita

Jai zoriontsuak guztioi!

Kalebarren 7. Tel.: 943 78 62 45 ANTZUOLA

HORTZ KLINIKA

Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

Odontologia orokorra • Endodontziak
Periodontzia eta inplanteak • Protesiak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behe 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

Zorionak guztioi!

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

((112)) SOS DEIAK

UDALA > DOMINGO ITURBE PATRONATUA

Patronatua berriztatzeko dirulaguntzak eskatu dituzte

Jolastoki estalia, erabilera askotariko lau gela eta aterpetxea egin gura dituzte

Eskola zaharra bota eta kantxa bat, eskolako ortua eta aparkalekuak ipini nahi dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Urteak dira Udala bueltaka dabilera Domingo Iturbe patronatuko eraikinarekin zer egin. Aurreko gobernuak Mendi Museoaren proiektua zuen esku artean.

Oraingo Udal Gobernuak hasieratik adierazi zuen proiektu hori ez zegoela bere lehentasunen artean, eta beste erakunde batzuen implikazio zuzena ezinbestekotzat zuela hori aurrera eramateko. Bada, aisiaaldiarekin eta hezkuntzarekin lotutako egitasmo baten berri eman du orain. "Dirulaguntzak eskatuko ditugu Domingo Iturbe patronatua berriztatzea eta eskola zaharra botatzeko", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. Gune horretan kantxa bat, aparkalekuak eta eskolako ortua ipintzeko proposamena dute mahai gainean.



Gaur egun erortzear dago Domingo Iturbe patronatuko eraikina.

L.Z.

JOLASTOKI ESTALIA

Domingo Iturbe patronatuko eraikinean jolastoki estalia, erabilera askotariko lau gela eta aterpetxea egitea aurreikusten du Udal Gobernuak.

"Proiektua idazteko Ereineko dirulaguntzeta aurkeztuko gara", esan du alkateak. "Iaz

100.000 euro eman zizkiguten haurreskola berrirako". Jolastoki estalia egiteko, berriz, Hezkuntza Sailera joko dute: "Itxura baten, datorren urtean ere Zapaterok dirulaguntzak emango ditu, eta gune hau sartuko genuke".

Aparkalekuak egiteko Ihobeko dirulaguntzeta egingo du eska-

era Udalak. Iaz, hortik, 285.000 euro etorri ziren Elgetara Salbador kalea urbanizatzeko eta irailean hasiko diren Asentzioko lanak egiteko.

"Proiektua ez daukagu idatzi", argitu du alkateak, "baina plano batzuk aurkeztu ditugu eta aurrekontu bat ere landu dugu".

> TOPAKETA
Arantzetaren nazioarteko topaketa bihar, zapatua

Arantzeta abizena dutenek bihar, zapatua, egingo dute topaketa Elgetan. Lehenengo ekitaldia Arantzeta auzoan egingo dute. Bertako base-riak, ermita eta iturria eza-gutzera joango dira 10:00 alde-ra. 11:30ean harrera egingo die Oxel Erostarbe alkateak udaltxean, eta jarraian, San Roque Osten egun horretarako bereziki landatutako haritz bat aurreksua eta bertsoak eskainiko dizkiote. Espaloian egingo dute bazkarria. Gutxienez 150 bat lagun elkartuko direla adierazi dute antolatzaileek.

> ERAKUSKETA
Domekan, hilak 19, jokatuko da Elgetako mendi kriteriuma

Elgetako txirrindulari lasterketaren 25. edizioa jokatuko da domekan. Horregatik, ekitaldi bereziak antolatu dituzte antolatzaileek. Zapatuan seilu erakusketa zabalduko dute kultura etxeen. Luis Mari Aristegik lagatako 500 bat seilu egongo dira ikusgai, guztiak txirrindularitzarekin lotutakoak. Domeka eguerdira arte egongo da zabalik. Bestetik, herri bazkarria egingo dute domekan.

> DEIALDIA
Eskolako gelak margotzen laguntzeko deia

Iaz egin zen moduan, uda honetan ere Herri Eskolako pare bat gela margotzea da Udalaren asmoa. Bada, dei egin diete herritarrei gela horiek auzolanean margotzen laguntzeko.

Interesatuek udaletxera jo behar dute izena emateko edo Hezkuntza zinegotzi Rebeka Uberarengana jo behar dute. Taldetxo elkartzen bada egingo da lana, eta kopuruaren arabera gela bat edo bi margotuko dira.



Beharginak aste hasieran Domingo Iturbe kalean lanean.

L.Z.

HIRIGINTZA

Domingo Iturbe kalean hamar bat aparkaleku berri egiteko lanak martxan dira

Azken egunotan beharginek lanean dihardute Domingo Iturbe kalean. Espaloia zulatu, autoendako aparkalekuak egiteko tokia laga eta atzera ere espaloia txukuntzen aritu dira. Hamar bat aparkaleku berri egiteko lanak dira. "Egindako inuesta batean jendeak argi esan du aparkaleku arazoa dugula herrian", adierazi zuen bere egunean Iban Retolatzak, Hiriginta zinegotziak. Retolatzak esku artean dituen datuen arabera, 750 bat ibilgailu daude Elgetan. Erdigunean 300 aparkaleku daude eta kalkulatzen da garajeetan 500 ibilgailurendako plazak daudela. "Zenbakiak ez dira hain aldreibesak".

JAIAK > SANTIXAUAK

Goimendi auzoan gertu dituzte Santixa jaiak

Soka-dantza, herri kirolak, bertsolariak eta trikitilariak daude antolatutako ekintzen artean

L.Z. > ELGETA

Hurrengo aste bukaeran, hilaren 25ean, ospatuko dugu Santixa eguna, eta Goimendi auzoan gertu dituzte urtero jaiak. Bezperan, hilaren 24an, hasiko dira motorrak berotzen berakatz zopekin (21:30) eta Jon Ostolatzaren eta Unai Andonegiren trikiti doinuekin (23:00).

SANTIXAU EGUNA

Ekitaldi nagusiak, baina, zaptuau, hilak 25, egingo dituzte Goimendin. Meza entzungo dute 11:00etan, eta, amaitutakoan, urtero soka-dantza egingo du Kezka taldeak auzoko plazan. Joxe Agirreren eta Jesus Mari Irazuren bertso saioak emango dio jarraipena egunari. Dantza egitea gustuko dutenendako,

berriz, erromeria egingo dute Imanol Astiazaranek eta Izerrek, 13:00etan hasita. Bazkal aurretik umeek ere euren gustuko jolasak izango dituzte. Lasterketa eta lurrezko itsulapikoen apurtzea egingo dituzte, besteak beste.

HERRI KIROLAK

Arratsalderako, 18:00etarako programatu dituzte herri kirolak Goimendin. Boleta jokoa ere egingo dute, egun horretarako bereziki txukundutako bolatoki ederrean. 19:00etan Agirrek eta Irazuk beste bertso saio bat egingo dute. Ondoren, gauerdira arte, Imanol Astiazaranek eta Izerrek hartuko dute lekukoa trikiti doinuekin. Urtero urdaia zpikoaren zozketa eta txokolate-jana 20:00etan egingo dituzte.

> 'KANTARI'
Elgetako taldea hilaren 23an ikusiko dugu GOITBn

Goiena Telebistak ekainaren 13an Bergarako Zabalotegi aretoan egindako *Kantari* saioan dantzatu eta abestu zuen Elgetako taldeak.

Ikuskizun hori hilaren 23an, egunean, emango dute Goiena Telebistan, 20:45ean hasita. Errepikapena ere izango du, hilaren 24an, 13:45ean hasita.

Asier Agirre > Alkatea

"Plan Orokorra atzeratuta doala egia da, baina garrantzitsuena da lana ondo egitea"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
 Bi urte pasa dira Udal Gobernu berria osatu zenetik. Hori horrela, bi urte hauetan egindako lanaren inguruari jardun dugu berbetan Asier Agirre alkatearekin.

San Martin jaiak bukatu berri dira. Nola joan da guztia?

Oso ondo. Pozik gaude. Giro polita izan dugu jaietan eta jendeak antolatutako ekintzetan parte hartu du. Gustura gaude.

Astelehenean, baina, istiluak izan ziren. Zer gertatu zen?

Bai. Bi gaztek herriko hainbat birziklatzeko edukiontziz erre zituzten. Ertzaintzak identifikatu egin zituen, eta ikusiko dugu zer gertatzen den orain.

Udal Gobernuak Aramaion gehiengo osoa dauka. Ze harremann duzue oposizioarekin?

Ona. Ezin gara kexatu. Gehiengoa izateak ez du esan nahi *rodilloa* pasatzen ibiltzen garenik, gardentasun guztiarekin jokatzen saiatzen gara. EAjK Udal Gobernuaren lanaren jarrai-pena egiten du, eta baita EAk ere. Dena dela, euren asistentzia edo parte-hartzea guk nahiko genukeena baino txikiagoa da. Bainan euren eskubidean daude eta gu, gure aldetik, saiatzen gara batzordeak ahalik eta txukunen eroaten. Azken finean, hiru alderdik osatzen dute udalbatza.

Plan Orokorrarekin bueltaka jarraitzen duzue. Eman duzuen azken pausoia izan da planaren helburu eta irizpideak onartzea. Laburbilduta, zeintzuk dira zuen helburuak?

Plan Orokorra ondo egiteak denbora darama; poliki doa dena, baina herritarren parte-hartzea lortu dugu, eta hori garrantzitsua da. Lehenengo, jendeari informazioa eman behar zaio eta gauzak azaldu. Hori eginda, erraza-



Asier Agirre, alkatea, Aramaiko udaletxearen aurrean.

A. BARRUSO

"Oposizioarekin harremana ona da, euren parte-hartzea nahiko genukeena baino txikiagoa den arren"

"Eguneko zentroaren lanak irailean hasi eta abendurako bukatu nahi ditugu"

"AHTk Untzilla inguruko parajea erabat aldatu du dagoeneko"

Oraindik itxaron egin behar da. Eman duguna pauso bat beserrik ez da. Orain, akordioak adosten jarraituko dugu Aholku Kontseiluarekin batera eta akordio horien berri ematen joango gara Plan Orokorra egiten ari den enpresari. Gure asmoa da hiru astean behin elkartzea. Bainan garrantzitsuena ez da noiz, bai-zik eta zelan, eta lana ondo egitea. Gai garrantzitsua da, plan horrek zehaztuko du gure herria nolakoa izango den 20 urte barru.

Joan den astean jakin genuen Aldundiak dirulaguntza emanago duela eguneko zentroa egiteko. Sinatu duzue hitzarmena?

Hilaren amaieran sinatu nahi dugu Aldundiarekin akordioa. Proiektua landuta dago; beraz,

akordioa sinatu bezain laster lehiaketara aterako da. Asmoa da irailean lanak hasi eta urtea amaitu baino lehen bukatzea.

Energia berritzagarrien aldeko apustua egin nahi duzue. Ze proiektu dituzue buruan?

Proiektu bat baino gehiago ditugu buruan. Lehenengo udal eraikinei zuzendutakoia izango da. Sastiñan ipiniko dugun galda-rekin, egurra erreta, udal eraikinak berotzeko energia lortu nahi dugu. Ahal bezain laster ipini nahi dugu martxan sistema hori.

Krisi ekonomikoak izango du eraginik Aramaiko Udalean?

Bai, noski. Proiektu asko ditugu esku artean: hiltegi zaharra, auzoetako azpiegiturak hobetze-ko lanak (Etxaguen, Arriola, Zalgo-Errotaberi, Untzilla...), jolas-parkea, eguneko zentroa... Horiedoko guztiendako lortu ditugu dagoeneko dirulaguntzak. Bainan horrek ekartzen du Udalak ere zati bat ipini behar duela. Ez dugu proiektu bakar bat ere egiteke utzi nahi. Horretarako, Udalak milio bat euroko mailegua eskatuko du eta horrek, zalantza barik, datozen urteetako aurrekontuetan eragina izango du.

Nola doaz Abiadura Handiko Trenaren lanak?

Hori jakin nahi duenari Untzilla aldean buelta bat emateko esango nioke. Parajea erabat aldatu da dagoeneko. Biaduktua sei zutabe egin dituzte dagoeneko.

AHTren gaineko galdeketa egi-teagatik auzipetua izan zara eta fiskaltzak zure inabilitazioa eskatu du. Nola dago kontua?

Fiskaltzaren eskaera erreku-rritu egin genuen, baina ez dute onartu. Pentsatzen dut datozen asteetan jakingo dugula epaike-taren eguna.

Andres Osinaga > EA

"Plan Orokorrak, gutxienez, bi urteko atzerapena dauka"

"Udal Gobernuak orain arte egindako lana, nik baino hobeto, baloratu beharko lukete ANV bozkatu zutenek. Haiei dagokie hori. Ez dut uste nire iritziaz ezer konpon lezakeenik."

Bestalde, nire oposizioa egiteko modua da herrirako onena dena defendatzea, EAren eta nire iritziazen arabera. Udal Gobernuak erabateko gehiengoa edukitzeko ez du errazten ezta zailtzen nire lana. EAko ordezkarri naizen aldetik, esango nuke Udal Gobernuko kideekin dudan harremana normala dela: batzuekin ona, beste batzuekin ez hain ona.

Plan Orokorraren gainean, orain urtebetetako esandakoia errepikatuz, aurreko agintaldian hasitako lanek, gutxienez, urte biko atzerapena daramate eta oraingo erritmoan oso epe luzera ikusten dut planaren onarpena; agian, agintaldi amaiera hurbilduko da guztiz bukatu orduko.

Azkenik, Abiadura Handiko Trenari buruz, esan eta publikatu diren albiste guztiak baino garrantzia handiagoa dute isildu direnak edo manipulatu direnak. Honi buruz egia jakiteko badaude hainbat kontu argitarra daitezkeenak".

Txema Vilches > EAJ

"Gazteekin arazoak daude; neurriak hartu beharko dira"

"Plan Orokorra oso atzeratuta doa, baina pozik gaude azken urte honetan aldaketa garrantzitsu bat izan delako. Herritarren parte-hartzea eskatzen genuen eta hori lortu da, orain dela hilabete batzuk sortutako Aholku Kontseiluarekin. Dena dela, uste dugu erabaki zehatzak hartzen hasteko garaia dela; aurrera egin beharra dago. Abiadura Handiko Trenaren lanen jarraipen eta kudeaketan ere aldaketa igarri dugu. Esango nuke, gainera, herri mailan gertatu den aldaketa izan dela. Ez dakit zer gertatu den, baina hasierako protesta-jarrera edo tentsio hura baretu

egin dela dirudi. Aramaiko interes puntuak eta herria bera babestea da garrantzitsuena. Horretan dihardute orain, baina Udal Gobernuak jarrera hori hasiera-tik hartu behar zuen.

Amitzeko, azkenaldian ardura handia eragiten digun gai bat plazaratu nahi dugu. Arazoak izaten ari gara herrian gazteekin, ez zaigu batere gustatzen azkenaldian ikusten ari garena. Aramaio beti izan izan da herri lasaia eta azkenaldian ezin dezakegu hori esan. Benetan arduratzenten gaituen gaia da eta neurriak hartu beharko direla ikusten dugu".

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK



Oraintsu berritu duten abadetxea.

MIRARI ALTUBE

LANAK > ABADETSEA

Egunotan bukatuko dituzte abadetxeko berritze lanak

Aurrealdea bakarrik berritu diote; barruan, oraingoz, ez dute lanik egingo

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Egunotan bukatuko dituzte abadetxearen eraberritzte lan guztiak. Lanik handienak eginda daude eta azken ukituak besterik ez zaizkie geratzen langileei. Horiek egindakoan errentan emateko gertu egongo da, hori da-eta etxearen ardura duen elizbarrutiaren asmoa.

San Millan parroquia nagusiari itsatsita dagoen abadetxeari aurrealdea eraberritu diote azken hilabeteotan eta oso dotore utzi dute. Barrualdean, osteria, ez dute inolako lanik egin eta, oraingoz, asmorik ere eza dautak.

Errentan bizi izan dira bertran urte askoan, baina azken urteotan hutsik zegoen, eta gero eta egoera kaskarra goan. Behin berrituta berriro errentan ematea da asmoa eta Elizbarrutiko ordezkariek diote interes han-dia piztu duela bizitza bakarra duen abadetxeak.

> ARGAZKIEN

Leintz Gatzagako 29 argazki daude Aldundiak abian jarritako 'GureGipuzkoa' webgunean

Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak argazkien artxiboa jarri du sarean. *GureGipuzkoa* du izena webguneak (www.guregipuzkoa.net) eta Gipuzkoako argazkiak daude. Berta-tik hartzeko aukera dago eta norberak bertara igotzeko ere bai.

Gatzagaren kasuan 29 argazki jaso ditu eta guztiak Indalecio Oianguren eibartarrarenak dira, 1915 eta 1961. urte artean ateratakoak. Jarindo eta Maroto baso inguruko paisaiak, herriko kaleak eta Dorleta santutegia agertzen dira argazkiotan.

AISIALDIA > UDALEKU IREKIAK

Jinkana jolas eta merienda gaur, udalekuak agurtzeko

Zortzi neska-mutiko hasi ziren eta arratsaldean hamaikak esango diente agur; irteerak, jolasak eta eskulanak eginda, gustura jardun dute guztiekin

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur, uztailak 17, bukaera emanago diente herriko udalekuuei. Ekitaldiz betetako bi aste pasatu dituzte herriko hainbat neska-mutikok, eta jinkana jolasarekin eta merienda eginda esango diente agur.

EGURALDIA LAGUN

Gatzaren inguruan antolatutako udalekuak izan dira, herritik askorik aldendu barik antolatutako ekitaldiekin -irteera bakkara, Landara. Neska-mutiko guztiak gaztetxoak izan dira -2 eta 8 urte artekoak-, eta lehen egunean hasitako zortziei beste hiru gehitu zaizkie; hala, hamaikak bukatuko dute gaur. Herriko begiraleek jardun dute aurten umeekin, eta, halako kontuetan esperientziarik ez izan arren, ondo moldatu direla jakinarazi dute, "inolako ezusteko barik".

Aurten, gainera, eguraldia lagun izan dute eta horrek arrakasta ziurtatu du, batez ere ekin-tza gehienak kanpoan egitekoak zirelako. Hala, astelehenean Uraren Eguna ospatu zuten,

lehenengo zikin-zikin egin guztiak eta gero 12 tutuko iturrian ibili jolasean; martitzenean, jolasak egin zitzuten pilotaleku, eta eguztenean, Naturaren Eguna ospatu zuten. Atzo, eguna, Dorletara joan ziren kanpin den-dekin gaua pasatzera eta gaur agurra ospatuko dute: lehenengo jinkanan jolastu eta gero merienda elkartean.



Udalekuak neska-mutikoak Dorleta inguruan, eguztenean.

M.A.

Garazi Orobengoa > Udalekuak begiralea

"Umeak ezagutzeak samurtu egin digu lana begiraleoi"



Garazi Orobengoa. M.A.

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Begirale lanak egin ditu udalekuetan Garazi Orobengoa, Lur Uribetxebarrria eta Aiora Elkorobarrutiarekin batera.

Udalekuotan lehen esperientzia izanda hiruondoako?

Bai, eta oso gustura gabiltza; errepi-katzeko modukoa da esperientzia hau.

Orain arte kanpoko begiraleak ibili izandira; herrikoak izatea baloratu dute?

Baietz esango nuke, umeak ezagutzeak samurtu egin du lana eta gurasoak ere gustura daude.

Umeek 2 eta 8 urte artean dituzte; adinak badu eraginik ekintzak antolatzeko orduan?

Bai, umeak txikiak izateak zaildu egiten ditu ekin-

tza batzuk eta begiraleok lan handiagoa dugu. Hala ere, ondo moldatu gara.

Izan duzue arazorik?

Ez, bat ere ez. Eta, zorio-nez, istripurik ere ez.

Zu zeu zein ekintzarekin geratuko zinateke?

Landara egindako irteerarekin eta Uraren Eguna-rekin; oso ondo pasatudugu bietan, ura lagun.

Bernardo Atxagaren 'Zazpi etxe Frantzian' nobela berria sinatuta nahi?

Egin zaitez harpidedun eta hartu parte hileroko zozketetan. Uztaileko zozketan liburu sinatua jasotzeko aukera izango duzu.

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



PAMIOLA



Hirugarren mailan lehiatuko den taldea, astelehenean, Ibarra futbol zelaian. Etxeko jokalariek ongietorria egin zieten berriei.

XABIER URTZELAI

Astelehenean aurkezu zuen UDAk hirugarren mailan lehiatuko den taldea; abuztuko azken asteburuan hasiko dute liga txapelketa

KABIER URTZELAI > ARETXABAleta
Aretxabaletak astelehenean aurkezu zuen 2009-2010 denboraldian izango duen taldea, baina oraindik badago fitxaketendako astia. Taldeak, hasiera batean, bederatzi jokalari aurkezu behar zituen, baina zehazteke dago Arenas de Getxoko Borja del Rio Ibarrrara etorriko den, azken orduan beste eskaintza batzuk jaso ditu eta. Hala, Jonan Bazquez (Lakua), Eden Gorosabel (Laudio), Ando-

FUTBOLA > UDA TALDEAREN AURKEZPENA

Gordobil: "Ezin gara kikildu, ausart ekingo diogu kategoria berriari"

ni Amutxastegi (Mondra), Kerman Azkarraga (Elgoibar), Yasine Guti (Ordizia), Aitor Perez (Eibar), Aitor Irastortza (Ordizia) eta Unai Biana (Murgia) dira klubak egin dituen fitxaketak, orain goz. Hala ere, Ordiziako etorriko diren bi jokalariak ez ziren aurkezpenean izan, klubaren baimarekin.

Bestalde, Aretxabaletako taldea utzi dute Asier Undak (Gernikak fitxatu du), Mikel Arte-

txek, Enrique Tenak (Mondrara joan da utzita), Iban Lopezek eta Igor Arriagak (Eibarrera joan dira entrenatzale lanetara) eta Iban Espinosak (Durangok fitxatu du).

ELGARRESTA, PRESTATZAILEA

Atezain lanetan ibili den Jonan Elgarrestak eskularruak zintzilikatu ditu, baina taldean jarraituko du: 3. mailako taldearen prestatzaile fisikoa izango da.

Taldea zuzenduko dutenen artean ere ez da aldaketarik izango: Gordobilek eta Arenatzak jarraituko dute lan horretan.

Hain zuzen, Arrasateko entrenatzaileak argi du UDAk ezin duela urtea kikilduta hasi: "Gero emaitzek esango dute zein den gure lekuak, baina ezin dugu txapelketa hasi kategoriari eusteko helburu bakarrarekin, eta ez gara kanpora kikilduta joango. Ausartak izan behar dugu".

TXIRRINDULARITZA

Elgetako mendi kriteriumak 25 urte

Domekako probak 23 urtez azpiko eta elite mailako ziklistak batuko ditu

X.U. > ARRASATE

Domekan egingo dute Elgetan 25. Euskadiko mendiko kriteriuma, eta elite eta 23 urtez azpiko talde indartsuenak batuko ditu. Lasterketa 10:00etan hasiko da eta ziklistek 122 kilometroko ibilbidea izango dute. Tartean igo beharko dituzte Areitio, Asentzio, Kanpanzar eta, azken kilometroetan, Elgeta.

Iaz erakustaldia egin zuten Azpirukoek. Ihesaldian talde horretako hiru lagun sartu ziren, baina lasterketa ez zen Elgetarako igoeran era-baki. Lehenago, Epeletako Bergarara bidean, taldekoideen laguntzarekin Ugaitz Artola erasoa jo zuen eta bakarrrik iritsi zen Elgetara. Ez zen nolanahiko garaipena izan, Azpiruko birritan erori zen eta; edozelan ere, helmugan azkarrena izan zen.




Ugaitz Artola.

J.A.

Iker Eskibel eta Alex Aranburu Espainiako Txapelketan

Lizarralde Kirolak taldeko ziklistak Bartzelonan izango dira asteburuan, Espainiako mendiko bizikleta txapelketan esku hartzen. Joan den asteburuan Herediako lasterketan izan ziren Lizarraldeko ordezkarriak, eta bertan, kadete mailan Iker Eskibel hirugarrena izan zen eta kategoria horretan lider izaten jarraitzen du -argazkian, erdian-. Gazte mailan, berriz, Martin Berrizbeitia ere podiumera igo zen, hirugarren postuan.




MIGUEL ANGEL

TXIRRINDULARITZA Martitzenean egin zioten ebakuntza Iban Velascori

Domekan entrenatzen zebilella erori eta ezker eskuko erradioa hautsi zuen Iban Velascok. Euskaltel-Euskadiko ziklistari martitzenean egin zioten ebakuntza, eta mediak eprobetxatu zuten esku horretan zuen plaka bat kentzeko, lehenago izandako beste eroriko baten osteen jarritakoa. Zorte txarra Arrasatekoaren dako, ez dira-eta hiru hilabete Errioxako Itzulian erori zela. Helburua da denboraldiko bigarren zatirako errekuperatzea, baina garantzitsuagoa da ezker esku hori ondo errekuperatzea.

Debagoineneko GREMIOAK



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoa, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta

- Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

- Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbani-zazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

- Gipuzkoa etorbidea 39, behe
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailua eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
- Galdarak aldatzea
- Obra integralak
- Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behe C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoina Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Leho eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko lehioak
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

IZBAR

BERGARA

- Leiho eta ate isolatzaileak
- Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
- Kontraleho errustikoak eta mallorkinak
- Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorenzaintza
- Ureztatzezen sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztateak
- Errrotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Oihana Kortazar (ezkerrean), Anbotoko kilometro bertikalean Sara Vila eta Nerea Amilibia aurreratzeko unean. ARGAZKI PRESS

MENDIKO LASTERKETAK > EUROPAKO TXAPELKETA

Oihana Kortazar Italian dago, 'skyrunning' txapelketan

Gaur kilometro bertikala proba du, eta domekan hogeita bi kilometroko 'skyrace' lasterketa

XABIER URTZELAI > ELGETA

Asteburuan egingo dute Italian Europa skyrunner txapelketa, eta Oihana Kortazar eguzatenaz gerotzik dago han, Espaniako selekzioko gainontzeko atletekin batera. Manuel Amat hautatzai-leak punta-puntako atletaz osatutako zerrendan sartu du elge-

tarra -Kilian Jornet, Agusti Roc, Raul Garcia, Monica Ardid, Nuria Dominguez, Alizia Olazabal...-, aurten urte borobila egiten dabilen seinale.

Elgetakoak Espaniako kopa du begiz jota, eta joan den asteburuan, Gironako Sant Joan de les Abadesses herrian egin zuten

Taga 2040 EVO lasterketa irabazi zuen, kopako bigarren proba: "Lehenengoan bosgarren sailkatu nintzen, eta orain, bigarren eginda, aurrera egin dut sailkapenean. Oraindik beste bi lasterketa geratzen dira, eta ea zer moduz nabilen".

GAUR, KILOMETRO BERTIKALA

Asteburuan, baina, Kortazarrek Europa mailako hitzordua izango du. Hain zuen, gaur, egubakoitza, izango du lehenengo proba, kilometro bertikala, eta domekan hogeita bi kilometroko Dolomites skyrace proba: "Ilusio handia egiten du lehian seriotsunez nabilen lehenengo urte honetan Europako txapelketara joan ahal izateak. Puntako atletak egongo dira han, eta, egia esan, presio handi barik noa, badakidalako beste maila bateko atletak izango direla. Gozatzena noa Italiara, ikastera eta esperientzia hartzen, badakidalako hemen lortzen ditudan postuak ezin ditudala han lortu".

Kilometro bertikaleko lasterketak 2,2 kilometro ditu, eta distantzia horretan 1.000 metroko desnibela gainditu beharko dute -Anbotoko kilometro bertikalean Kortazar izan zen azkarrena-. Domekan, berriz, hogeita bi kilometroko proba izango du: "Distantzia hori ondo datorkit, baina jaitsiera oso gogorrak daudela esan didate, eta bideoan ere hori ikusi dut. Beherantz baino hobeto moldatzentz naiz gorantz; horrenbestez, ikusi egin beharkoa da zelan ibiltzen garen".



Xabier Aranzeta.

LOKATZA

Arantzeta Euskadiko selekzioaz Asturiasera

X.U. > ANTZUOLA

Datorren asteburuan egingo dute Asturiaren Espaniako gazte mailako txirrindularitzar lastrerketa, eta Sumofic taldeko lastrerkaria proban izango da, Euskadiko selekzioarekin. Hala, denboraldian zehar egindako lorpenek balio izan diote Antzuolakoari selekzioan leku bat egiteko.

KONTZENTRATUTA

Hitzordu hori prestatzeko Euskadiko selekzioan izango diren ziklistak kontzentratu egingo ditu federazioak asteburuan, eta entrenamendu saioak eta zuzendari teknikoek emandako formazio eskolak izango dituzte.

TXIRRINDULARITZA > GAZTE MAILA

Santa Marina saria egingo dute bihar Bergaran

X.U. > BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute Bergaran gazte mailako ziklistei zuzenduta dagoen XVIII. Santa Marina saria.

Gazte mailakoendako denboraldiko 30. lastrerketa izango da Santa Marinakoa, eta oraindik beste hamabi lastrerketa geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko, irail amaieran.

IRTEERA NEUTRALIZATUA

Lasterketaren hasiera neutralizatua izango da, eta ziklistek 86

kilometro izango dituzte aurrean. Bergarakit irten eta Zubillagaino joango dira (10,5 km), handik berriro ere Osintxuraino jaitsi eta atzera Zubillagara (41 km). Eta Zubillagara bigarrenez igotzerakoan bailaran behera egingo dute, Elgoibarreraino -San Antolin auzoa-.

Azkeneko hamasei kilometroak bailaran behetik gora egingo dituzte, eta lehenengo sailkatuak 18:15 inguruan iritsiko dira Matxiategin egongo den helmugara.

Iraileko lehen asteburuan itzuliko dira Pol-Poleko beteranoen irteerak

Juan den asteburuan egin zuten Pol-Poleko kideek opor aurreko azken irteera, Zuberoa aldera. Donibane Garazitik aurrera, Maule bidean Col d'Osquich (500m) mendatera jo zuten, eta handik Col de Napalera, Source de la Bidouze inguruera eta Arla auzoan etxera itzultzeko autobusa hartu zuten. Pol-Poleko beteranoek, baina, dagoeneko gertu dute abuztu ostean egingo duten lehen irteera (irailak 5 eta 6). Panticosa aldera joango dira, asteburua pasatzera.

ESKAINTZA BEREZIAK!



Sukalderako altzari eta etxetresna elektrikoak erosita 16"-ko LCD telebista opari!

Carrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIK
BAINURAKO ALTZARIK
HORMA ARMAIRUA
BESTELAKO ARMAIRUA

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943790182
scarrasc_1@infonegocio.com



> ANTZUOLA

Ekitaldi ugari aste bukaeran Antzuolako jaietan > **32**



> SANTIAGORA

Arizmendiko 63 ikasle eta 11 begirale bizikletan Galiziara > **40**

> XABIER VALLINA

Arrasateko gazteari betitik gustatu izan zaio abestea eta dantza egitea; Betizun ibilitakoa, Psikologia ikasten dabil eta Aspacen boluntario dihardu > **36**



The Graffiti Classics: umorea eta musika uztartzen dituen taldea

'16 cuerdas con ritmo' ikuskizuna gaur gauean Arrasateko Monterron parkean

1997an Londresen sortutako taldea da The Graffiti Classics

EDU MENDIBIL > ARRASATE
Udazabal programaren barruan, The Graffiti Classics taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Monterron parkean. Ibilbide luzeko taldea da Inglaterratik, Londrestik datorrena: 1997an Covent Garden inguruan ibiltzen ziren lau musikarik sortu zuten eta ordutik hona taldearen estiloa bilakatzu joan da, espezializazioa lortu arte. Izan ere, harizko laukote baten eskaintza jendeari hurbiltzea da helburua. Umoreak protagonismo handia dauka taldearen emanaldieta.

LAU MUSIKARI
Frances Grime (ahotsa eta biolina), Alice Pratley (ahotsa eta biolina), Stephen Kennedy (ahotsa eta biola) eta Cathal O'Duill (ahotsa eta kontrabaxua) dira The Graffiti Classics. Orain dela 11 urte, 1998an, Yehudi Menuhi biolinista ezagunaren (1916-1999) *Live music now!* programazioan hartu zuten parte eta, horri esker, Gales eta Ingalaterrako toki askotan jo zuten. Handik abiatuta, ikusle kopuru zabalaengana iristea lortu zuten, eta jaialdi ugarien parte hartu: Terfel's Faenol, St. David's, Wresham, Taw Talent, Bude Festibal eta beste hainbat.

HAINBAT DISKO
2001 eta 2002. urteetan Norwegian zehar egindako bi biraren ondorioz, Naxos diskoetxeak umeendako kantuen grabazioa eskaini zion. Thorbjørn Egner-ek konposatutako kantuekin CDa kaleratu zuten 2003ko ekainean. Norwegian arrakasta nabarmena lortu zuten aipatutako diskoarekin. Aurretik beste lan bat kale-



The Graffiti Classics taldeko kideak argazkian. Gaur Arrasaten izango dira.

GOIENKARIA

ratu zuten taldearen izenarekin eta azkena Estatu Batuetan zuzean grabatutako lan bat da, *The Graffiti Classics live*. 12 kantu batu dituzte lan horretan, tartean *Hava Nagila*, *Pizzicato Polk*, *She moved through the Fair*, *La Comparsita* eta *Air on a G String*.

'16 CUERDAS CON RITMO'
Gaur, Arrasatera, *16 cuerdas con ritmo* ekarriko dute, 22:30ean. Hain zuen ere, musika klasikoa

aspergarria ez dela erakusten ahaleginduko dira britainiarra. Hainekin guztia da posible: kan-kan pieza bat dantzatzea,urrea botatzea edo ikusleen artetik neska gazte bat edo mutikotxo bat dantzara ateratzea...

Arrasatekoa dugu Espaniako Estatuan bira horretan emanago duten lehenbiziko emanaldia. Bihar, zapata, Burgosen, Arandan egingo dute emanaldia eta uztailaren 25ean Fuenlabrada.

Folklore jaialdia martitzenean Monterronen

Zalantzarak gabe, gaur gaueko da Arrasateko Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako Udazabal programaren ekitaldi garrantzitsuenetakoak. Izen handiko taldea da Graffiti Classics eta kritika onak besterik ez dute jaso han eta hemen. Ikusmin handia piztu du gaurko emanaldiak.

Udazabal egitarauarekin jarraituz, martitzenean, hilaren 21ean, Sri Lankako Sama Balleta eta Hego Afrikako Gauteng-eko probintziako taldea izango dira Monterronen, 22:30ean. Sri Lankako taldearen kasuan, jantziak eta maskarak dira haien ezaugarrietako bat. Hegoafrirrek dantza indigenak ekarrisko dituzte Arrasatera.



Joselu Anaiak taldearekin erromeria izango da domekan.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > JAIAK

Ekitaldi ugari aste bukaeran, Antzuolako jaietan

E.M. > BERGARA

Atzo, eguna, hasiera eman zieten Antzuolako jaiei eta aste buruan jarraipena izango dute. Egitarauan ez da nobedade aipagarririk, baina bai, ordea, ohiko ekitaldietan: zapatuko Mairuaren Alardeak beste urte batzuetan baino ikusmin handiagoa piztu du. Izan ere, hainbat berrietasun izango ditu aurten. Bihar, zapatua, 19:00etan izango da alar-

dea. 180 bat herritarrek hartu dute parte eta Eguzki auzora eta Antiguako ermitara iritsiko da. Bien bitartean, irudi zaharrekin egindako dokumentala eskainiko dute plazan, han bildutakoendako. Umeendako jolasak ez dira faltako eta musikak eta dantzak ere tarte zabala izango dute jaietan. Jai giroa nagusi, domekara arte ekitaldiz jositako asteburua dator Antzuolan.

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 17

- 09:55 TXEPLEROA jaurtiko da.
- 10:00 Txistulari taldearekin GOIZERESIA.
- 11:00-13:30 Umeendako JOLAS PARKEA plazan.
- 11:30 Meza nagusia.
- 11:30 Antzuolako 2. GASTRONOMIA LEHIAKETA pilotaleku txikian. Paella lehiaketa.
- 13:30 EPAIMAHAIAREN ERABAKIA eta paella lehiaketaren sari banaketa.
- Ondoren paella DASTATZEKO aukera.
- 16:30 MUS TXAPELKETA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.
- 16:30- 18:30 JOLAS PARKEA Herriko plazan.
- 17:30 ALTXORRAREN BILA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.
- 19:00 1. mailako afizionatuen PILOTA PARTIDAK pilotalekuaren. KALEJIRA Antzuolako trikitilari gaztetxoekin.
- 19:00 PONIAK ETA ZEZENTXOAK Zurrategin, Antzuolako trikitilari gaztetxoen eskutik.
- 22:00 BIDE BATEZ-ekin dantzaldia Herriko plazan.
- 23:30 SUZKO ZEZENA.
- 24:00 BIDE BATEZ-ekin dantzaldia Herriko plazan.

ZAPATUA, 18

- 07:00 TXOKOLATE JANA txosnetan.
- 09:55 KANOIAK SUTZEA.
- 10:00 Txistulari taldearekin GOIZERESIA.
- 11:30 Bergarako bandaren KALEJIRA.
- 12:00 Kulkia taldearekin JOLASAK Ondarren.

- 12:30 BERGARAKO BANDAren kontzertua Zurrategin.
- Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque
- 19:00 Mairuaren alardea Herriko plazan ALARDE BERRITUA ikusteko aukera.
- 20:15 OINARIN taldearen saioa.
- 21:30 HERRI AFARIA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.
- 23:00 KONTZERTUA Zurrategin.
- 23:30 SUZKO ZEZENA Herriko plazan
- 00:00-01:30 CÓCTEL LATINO taldearen saioa Herriko plazan.
- 00:30-02:30 Borondatzeko ALKOHOLEMIA KONTROLA. Kontrola egin eta informazio emango da.

DOMEKA, 19

- 07:00 TXOKOLATE JANA txosnetan. Goizaldean etxerako gogorik ez dutenendako.
- 11:45 SALDA jubilatuaren eskutik.
- 12:30 ACORDES NAVARROS taldearen eskutik nafar jotak Herriko plazan.
- 18:00-21:00 DRAGOIALDE txarangaren saioa Herriko plazan eta kaleetan zehar.
- 19:00 PINTXO ETA SAGARDO SOLIDARIOAK Herriko plazan. Bildutako dirua Anelkarrek dituen proiektuak laguntzeko izango da.
- 21:00 LARRAIN DANTZA, Ondarreko gaiteroak lagun direla.
- 21:15 JOSELU ANAIAK taldearekin erromeria Herriko plazan.
- 24:00etatik aurrera TXOSNETAKO EDARIAK EURO BAKARREAN.
- 01:00 JAI BUKAERA Herriko plazan.

> ARRASATE Estricalla taldearen kontzertua gaur gaztetxean

Kuraia eta El Corazon del Sapo taldeetan ibilitako jendeak osatzen du Estricalla hardcore taldea. Gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean izango dira; 22:00etan hasiko da kontzertua.

Eta haiekin batera beste hiru taldek joko dute gaur gaeuko kontzertuan: Material Rechazado eta Fight To Life Arrasateko taldeek eta Alemaniako datorren Blitztraktor punk-hardcore taldeak, hain zuzen ere.

> BERGARA Go-Jam aretoko agur festa disko jartzaileekin bihar

Go Jam aretoko agur festa izango da bihar, zapatua, 18:00etan hasita. Honako disko jartzaileek hartuko dute parte: Ima Txill Aut, Trampas, I-real, Alkate, Eneko Marrones, Pako, Mario Suso, Mitxel, Odei, Lalas, Txef-a & Friends, Alai, Elektik, JL Priamo, Dubby, Asier & Ibok, Pedro Suite, Balza, Koldo Intermusic, Angel, Haitz eta Ene-k. Sarrerak 10 eurotan izango dira salgai.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00 -14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

Uztailak 18
Irailak 19
Urriak 17
Azaroak 21

Antolatzailea:  ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRÁGÓN
■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saria

Laguntzailea:  ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatarien konfianza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaientzen dizkizute.



Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak


Har ezazu parte!



ZUHAITZ LARRAÑAGA



IDURRE AMOZARRAIN



OLAIA ZENGOTITABENGOA

Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakaoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da uztailaren 3an eta amaituko da irailaren 18an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarrak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-0-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskalerritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaleek, gehienez, 5 argazki bidali ahal izango dituzte.

- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdiadetik aurrera ASTELEHENKO GOIENKARIAN eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu ASTELEHENKO GOIENKARIAN.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaiaiak argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Horrez gain, GOIENAko beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Onenak aukeratuko ditugu orri batean kabitzen direnak argitaratzeko, egilea aipatuz eta beste komentario labur batekin.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIKO artxiboa gordeko dira eta aurrerantzean erabiltea erabakitzen, badugu egilearen izena ipiniko dugu.

Sariak



1. saria

Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- Live View AF sistemarekin
- 10 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa.
- Flash eta guzti.
- 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.



2. saria: Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egoalndia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiaken eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasate Bidaiaik
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA 

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50


Asteleheneik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara



Iker Agirrezabalategi eta **Arantzazu Urtzelai** oñatiarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Zañartuko elizan. Gero, ospakizuna Oñatiko Etxe-Aundi jatetxeen egingo dute eta eztei-bidaian Indonesiara joango dira. Zorionak, bikote, etxekoent partetik!



Nagore Talledo eta **Jorge Gil** arrasatearrak zapatuan, uztailak 18, ezkonduko dira Arrasateko udaltxean. Ondoren, baziaria egingo dute Lezoko Etxeberri jatetxeen. Zorionak eta ondo pasatu, bikote, familiakoent partetik!




Arrasateko **Maitane** eta **Borja** joan den uztailaren 11n ezkondu ziren Dorletako elizan. Ondoren, Gure Ametsa jatetxeen egin zuten baziaria. Borjaren lagunen partetik, zorionak eta oso ondo pasatu New York eta Cancun aldean, bikote!



Tere arrasatearra eta **Jose Carlos** oñatiarra bihar, uztailak 18, ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren, eztei-baziaria Oñatiko Etxe-Aundi jatetxeen egingo dute eta eztei-bidaian Mexikorajoango dira. Zorionak, bikote, eta ondo ibili, familiaren eta lagunen partetik!



Jokin Urrutia eta **Arantxa Urkia** aretxabaletarrak uztailaren 21ean ezkondu ziren, orain dela 25 urte. Domekan, uztailak 19, egingo dituzte ospakizunak familiakoent ondoan. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo ibili, familiako guztien partetik!



Bergarako Angiozar auzoko **Aroa** eta **Txopi** bihar, zapatua, ezkonduko dira, Angiozarren bertan. Zorionak, bikote, eta ondo pasatu eguna, guk ondo pasatuko dugu-eta! Ondo ibili eztei-bidaian eta gozatu! Zorionak, bikote, Angiozarko lagunen partetik!



Ana Santos eta **Juan Kar Barrena** oñatiarrak zapatuan, uztailaren 18an, ezkonduko dira Oñatiko udaltxean. Ondoren, eztei-baziaria eta ospakizunak Oñatiko Zelai-Zabal jatetxeen egingo dituzte. Zorionak, bikote, familiako en partetik!

OROIGARRIA

Igor Lete Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

Zu bezalako izarrak
ez dira inoiz itzaltzen.



Maite zaitugu.
Zure familia.
Bergaran, 2009ko uztailaren 17an.

URTEURRENA

Sor Maria Visitacion Igartua Elorza

Bidaurretako klarisatarra, Elordui baserrikoia

Oñatin hil zen 2008ko uztailaren 11n, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan,
uztailaren 18an, 20:00etan,
Oñatiko Bidaurretako elizan izango da.

“Zure irribarre eta begirada urdinak
gure artean jarraitzen dute”
Zure ilobak



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Andres Urzelai Ganboa

Antzuolan hil zen, istripuz, 2009ko uztailaren 11n, 54 urte zituela.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 18an, 19:30ean,
Oñatiko Agustinotan ospatuko da.

Hileta-elizkizunetara etorritakoie eta
samin-agurruk bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2009ko uztailaren 17an.

MEZA

Maritxu Mujika Mujika

Bergaran hil zen 2009ko uztailaren 15ean, 73 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna, gaur,
egubakoitzta, uztailaren 17an,
19:00etan, Bergarako Santa Marina
parrokiian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Fernando Duran Carmona

Tavex-eko txoferra

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailaren 19an,
12:30ean, Bergarako San Pedro
parrokiian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Teresa Aguirrezabal Aranzabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailaren 19an,
12:30ean, Bergarako San Pedro
parrokiian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Neli Colinas Trapote

Oñatin hil zen 2008ko uztailaren 25an, 60 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, uztailaren 18an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren
parrokiian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko senarra, seme-alaba eta gainerako sendikoen izenean.

Babeslea:



Beilatek
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



Xabier Vallina > Psikologia ikaslea, Aspacen boluntarioa eta Betizun ibilia

"Betizu saioan denon artean izandako giro ona azpimarratuko nuke"

Xabier Vallina gazteari betidank gustatu izan zaio abestu eta dantza egitea: "Oraindik ere

ibiltzen naiz batzuetan etxeen bakarrik nagoenean dantzan eta abesten, baina hau sekre-

tua da" dio. Hala ere, ez da soilik bere bizitza musikara mugatzen, gauza askotan dabil arra-

satear gaztea, buru-belarri. Gedi egotea gustatzen ez zaion horietakoa dela aitortu digu.

AMAIA ARANZETA > ARRASATE

Xabier Betizun egin zen ezagun, haren aurpegiaz oraindik oroitzenten gara behin telebistan dantza eta abesten azaldu zen gazte hurarekin. Hala ere, urteak aurrera doaz eta gauzak aldatu egin dira Xabierrentzat. Orain, urte haien poliki atzean utziz, Psikologia ikasten dihardu Donostian, eta udan, boluntario ibiltzen da Aspacen, ezinduekin bidaia egin eta hamabostaldi bat haiekin igaroz.

Nola edo nork bultzatu zintuen Betizuko casting-era aurkezteria?

Hasiera batean, herrira etorri zen karaoke batean parte hartu nuen. Handik aurrera, EITBko jendeak bultzatu ninduen casting batera aurkezta eta horren ondoren, beste bat eta beste bat azkanean, Betizu saioan amaitu nuen arte.

Zein oroitza nabarmenduko zenuke Betizuko ibilbidetik?

Lagunak eta jendea, batikbat. Bertako giroa oso atsegina zen, ez zegoen inongo lehiarik gure artean. Elkarrekin ondo pasatzen genuen eta hori da, gehienbat nabarmenduko nukenea eta niretzako garrantzitsuena izan zena.

Entseguak, galak... hori guztia berria izango zen zuretzat.

Bai; azkanean, 14-15 urterekin berria eta ezberdina izan zen niretzat eta bertan egon ginen guztientzat. Ostirala eta larunbatetan joaten nintzen. Ostiraletan Donostian grabatzetan genuen eta larunbatetan Durangon. Entseguak egiten genituen eta ondoren galak, telebistan ikusi ahal zirenak. Galetan gainera epaimahi bat zegoen eta horrek guztia profesionalagoa egiten zuen. Hala ere, gustura geunden, gure arteko giroa ezin hobea baitzen.

Hiru disko atera zenituzten. Ekitaldiren bat antolatu zutenen diskoak aurkezteko?

Soilik guk pare bat kontzerdu eman genituen. Ez genuen bira handirik egin. Nire taldea, saioan bertan geunden 12-13 bat pertsonez osatua zegoen. Ondoren, Betizu taldeak, sainotik sortu zen taldeak ere, diskoren batzuk atera zituen eta haiek bai eman zituztela guk baino kontzerdu gehiago Euskal Herrian. Baina guk ere harrera ona eduki genuen eman genituen kontzertuetan eta azkanean, jendea zu ikustera datorrela ohartzen zare-



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Psikologia ikaslea Donostian. **Zaletasunak:** Musika, lagunekin egotea eta ordenagailuak. **Gorrotatzen duzun zerbaitek:** Hipokrisia asko dagoela munduan. **Gomedatzeko moduko film bat:** Los violentos de Kelly. **Libu-**

ru bat: Piano gainean gosaltzen, Harkaitz Canorena. **Musikari bat:** Joy Division **Abesti bat:** Nirvanaaren Heart shaped box. **Bidaiatzako toki bat:** Venezuela. **Telebistako saio bat:** Ez dut telebista askorik ikusten, baina bat aukeratzekotan, House.

nean, gauzak ezberdin bihurtzen dira, zu baitzara protagonista eta sentsazio hori ez da inoiz ahazten.

Betidanik gustatu zaizu abestu eta dantza egitea?

Txikitak batez ere. Orain ere, jarraitzen dut noizean behin abestu eta dantza egiten, lagunekin nagoenean, tabernaren batean edo parrandan gabiltzala. Baina hori guztia atzean gelditu da jada. Beste zerbait egitea gustatuko litzaidake eta ez soilik jendeak abestu eta dantza egiten dakidalako ezagutzea.

Psikologia ikasteaz gain, Aspacen ere, boluntario ari zara. Gogorra da horrelako erakunde de batean pertsona ezinduekin jardutea?

Guztiz kontrako dela uste dut. Bizitzari eta baita niri ere gauza asko irakatsi didate. Haiek beste filosofia bat dute, gu baino askoz ere zabalagoa. Haien mundua ulertzeko modua ezin da bestekin alderatu, eta nik hau asko baloratzen dut: beste ikuspuntu batetik mundua ezagutaraztea eta ez bi begi hauetatik soilik.

Zer lan mota egiten duzue Aspacen?

Uztaileko bigarren hamabostaldian antolatzen ditugu bidaia txikiak eta guztion artean primearan pasatzen dugu. Santiagon izan gara eta Segovian. Jolasak antolatzen ditugu, bidaia, gauetarako ekintzak... eta guk haiei irakatsi baino, haien guri asko irakasten digute eta oso esperimentzia interesgarria da.

Zoritzarrez, oraindik gauza asko egongo da hobetzeko pertsona ezinduekiko eta haienbizimodua eroosoagoa egiteko gizarteak.

Falta handiak daude oraindik gizarteak eta gainera, jendeak boluntario idea hori zerbait arraro bezala sentitzen du. Asko dira ez dutenak ulertzten boluntariook egiten dugun lana eta kontzientzia edo pentsamolde horiek aldatu beharra daude. Azken batean, gure moduko jendea da, zoritzarrez horrela jaio direnak, baina inoiz ahaztu gabe gu bezalakoak direla, guztioi gizakiak bai-kara.

Udarako planik?

Printzipioz orain, lan pixka bat egin, Aspacekoekin bidaian joan eta ahal dela denbora ondo aprobetxatu.

Done Jakue bidea kostatik

BIZIKLETAN 15 eta 18 urte bitarteko Arizmendiko 63 ikasle eta 11 begirale abiatu dira Arrasatetik Coruñara

OIHANA ELORTZA > ARRASATE Frantziako Tourreko txirrindulariek 13. etapa egingo dute gaur, 200 kilometroko. Arizmendi ikastolako 63 ikaslek, 15 eta 18 urte bitartekoak, eta beste 11 begiralek, berriz, Santiago bidearen hirugarren etapa egingo dute, 72 kilometro inguruko.

Eguazten goizean abiatu ziren Arrasatetik. Islareseraino (Cantabria) autobusez joan ziren, eta handik Coruñara biziak egingo dute bidea, barnealdetik egin beharrean kostatik egingo dute-eta aurten Done Jakue bidea. "Malkartsuagoa izango da, igo eta jaitsi beharreko aldaera gehiago ditu bideak, baina askoz politagoa ere bada", dio Urtzi Amianok, espedizioko begiraleetako batek.

ALFORJARIK GABE Alforjarik gabe egingo dituzte Arrasatetik Coruñara dauden 600 kilometroak. Kamioi bat eta bi furgoneta doaz txirrindulariekin batera eta hantxe doaz tras-te guztia, bizikletak izan ezik.

ETAPAK Zortzi etapatan egingo dute bidea, atsedenaldiak eginda; azken etapa 95 kilometrokoa da

"Bazkaltze, adibidez, zukuak, frutak, gailletak eta antzerakoak hartu ditugu eta afaltzeko, jaki beroak. Ikerlek antolatzeko dena: prestatu, banatu eta jaso", dio Amianok. Bestalde, aterpetxean lo egiteko talde handiegia izanik, kirolegietan hartuko dute ostate. Gaur, egubakoitzat, esaterako, Ribadesellakoan. Hala ere, gau bat hondartzan egiteko ideia ere badute.

95 KILOMETROKO ETAPA Zortzi etapatan egingo dute Done Jakue bidea. "Batez beste 75 kilometro inguruko etapak dira, baina badago bat 95ekoak, azkena, hain zuzen ere. Atsedenaldi asko egingo ditugu etapa bakoitzean. Kalkulatu dugu bost ordu inguru beharko ditugula etapako, 15 kilometro orduko abiaduran, gutxi gorabehera", zehaztu du Urtzi Amianok. Gazte batzuk ibili dira bizikletan aurretik, baina beste batzuk spinningeko ordutan bakarrik jarri dira bizikleta gainean. Hilaren 22an iritsiko dira helmugara, eta 24an etxera.

HONDARTZAN Kirolegietan egingo dituzte gauak, baina gau bat hondartzan egiteko ideia ere eraman dute



IRTEERA Martitzen arratsaldean sartu zituzten bizikletak kamioian, Musakolan.

TXOMIN MADINA

ahobero

"Beharrezkoa bada, neuk ordainduko dut Bartzelonako eskaintzaren eta Valentziaren eskaearen arteko aldea"

David Villa > Futbol jokalaria

Antza denez, David Villa asturiarrak Bartzelonan jokatu gura du, kosta ahala kosta, eta gertu dago dirua jartzeko. Valentziak eskatu eta Barçak eskaintzen duenaren arteko differentzia ordaintzeko prest dago: zortzi milioi, hain zuzen. Dirua izateak askotan ahalbi-detu egiten du lortu gura dena.

iturri onetik

Mekolaldeko jatetxea itxi egingo dute hil honen bukaieran, San Inazio egunean

Bergarako Osintxurako bidean dagoen Mekolaldeko jatetxea itxi egingo dute hilabete honetan, uztailean. Bertako etxe-koandreak, Floritak, erretiroa hartuko du eta horregatik itxiko dute taberna eta jatetxea. Uztailaren 31n zabalduko dute azkenengoz, eta jatetxeko bezeroekin ospatu nahi dute agurra. Joan den ekainaren 1ean, 25 urte egin ditu Floritak Mekolaldeko jatetxearen lanean.

piperraутса

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperraутса'

Uda

Kargante egiten zait uda sasoi hau. Hainbeste, ez dut aspaldian opor luzerik hartzen udan, ez jasatearren artaldean ibiltzeak dituen astuntasunak. Baserrian bizi naizenetik, asko estimatzen dut zirkuitu jendetsuetatik aparte egotea, bake ederrean. Eta Arrasaten lanean eman ditudan udetan, gozo asko joan izan naiz lanera, bide libreetan zehar, erdi hutsik gelditutako herrira.

Orain Donostiara noa egunero, eta oso bestelako panorama daukat han: jende oldeak, autoaz sartu-irten gatazkatsuak, nekea edozein urrats egiteko... Espaloi jendez beteetan barrena, saiatzen naiz imajinatzen gorputz erdi biluz eta azal arrosen atzean egon daitezkeen historiak, baina apena pizten didaten interesik, gustura itzultzen naiz mendi arteko gordelekura.

ai, eñe!



Zapata dotoreegiak euriak bustitzeko

Zapata dotoreak izan arren, dagoeneko ez dago arriskurik euri zaparrada batek busti eta honda-tzeko. Ba zen garaia!

www.taringa.net

i K E R

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 FAGOR 
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak

